

# GUaiXe.eus



**Ordu aldaketa, igandean, goizaldeko ordubietan**



**Andra Mari ikastola Nafarroako Herri Kirol Jolasetako txapeldun handia. Bost finaleratik lautan izan dira irabazleak**



Kirolak >> 11



## Sakanako Industrialdeen Inbentarioa jendaurrera

Martxoaren 31n aurkeztuko dute, Arbizuko Utzuganen >>5

## Hautetsiak erabakiguneak gertu izatearen alde

Udal maparen inguruko bileran ateratako ondorioetako bat da hori >>7

## Zumarragako Arcelor-Mittalen itzala Sakanara iristen da >>6

# %51,46ko birziklatze tasa

>>8-9

## Hiru Mendi Zerrak mendi martxako izen ematea zabalik >>11

## Maiatzean jakinen da Europak Plazaola lagunduko duen >>7

## Gozategiko Iñigo eta Asier oholtzatik hausnartzen

Emanaldi berezia sortu dute >>15

**Martxoaren 25etik apirilaren 3ra**

**oporretan gaude**

Hurrengo Gualxea apirilaren 3an argitaratuko da

**GUaiXe.eus**

Sakanaoptika

ENJUZUMEN AZTERKETA DOAN

**% 25**

-era arteko

**DESKONTUA**

**AUDIFONOETAN**

ESKAITZAK

**EGUZKITAKOEN SORTA BERRIA**

BETAURREKOETAN GRADUATUETAN

**2x1**

948 563 124 • Intxostia zeharbidea 10 • Altsasu • www.optikasakana.com



# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com  
www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



## Atikilt

Bi zifra beteko ditu as-  
teburu honetan gure  
mutiko handiak: 10 ur-  
te!!! ZORIONAK,  
Atikilt!!!

Zuriñe eta Oskar  
ZORIONAK, Zuriñe  
eta Oskar. Asko maite  
zaituztegu. Etxarriko  
lagunak.



Antonio eta Arturo  
ZORIONAK bikote. Oporren bueltan bakau  
zer ospatu materan etxeko meyen!

## Bazkideek deskontua

Bakarra: **4,00€**

Bazkideak: **3,50€**

## marsuak-apiribilak

# 24-7

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Animal Blues.** Martxoaren 24an,  
ostegunean, 22:30ean Altsasuko  
Haritza tabernan.

### Bakarrizketa

**Bola mugimendua.** Martxoaren  
27an, domekan, 22:30ean Altsasuko  
Haritza tabernan.

### Ipuin kontalaria

**Printzesa kontu kontari.** Martxoaren  
25ean, ostiralean, 19:00etan  
Altsasuko Iortia kultur gunean.  
**Maider Galarza.**

### Zinema

**45 años.** Martxoaren 25ean,  
ostiralean, 21:45ean eta martxoaren  
27an, domekan, 20:00etan Altsasuko  
Iortia kultur gunean.

**La chica danesa.** Martxoaren 25ean,  
ostiralean, 22:00etan eta martxoaren  
27an, domekan, 20:10ean Altsasuko  
Iortia kultur gunean.

**Paperezko hegazkinak.** Martxoaren  
27an, domekan, 17:00etan Altsasuko  
Iortia kultur gunean.

**Pikadero.** Apirilaren 1ean, ostiralean,  
21:45ean eta apirilaren 3an,  
domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia  
kultur gunean.

**Brooklyn.** Martxoaren 31n,  
ostegunean, 19:00etan, apirilaren  
1ean, ostiralean, 22:00etan eta  
apirilaren 3an, domekan, 20:10ean  
Altsasuko Iortia kultur gunean.

**A ze nolako heroiak.** Apirilaren 3an,  
domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia  
kultur gunean.

### Mendi irteerak

**Beriainen gora, dispertsioa  
salatzeko.** Apirilaren 3an, igandean,  
9:30ean Arbizuko plazatik. **Sare.**



45 años filma Iortian ikusgai izanen da.

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Beasain-Altsasu.**  
Martxoaren 26an, larunbatean,  
10:00etan Altsasuko Baratzeko bide  
plazako lokomotoratik. 70 km.  
Zikloturista taldea.

**Hirumugako gaina.** Martxoaren  
27an, domekan, 8:30ean Altsasuko  
Zumalakarregi plazatik. 48 km.  
**Barranka txirindulari taldeko mendi  
bizikleta taldea.**

**Altsasu-Dulantzi-Altsasu.** Apirilaren  
2an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko  
Baratzeko bide plazako  
lokomotoratik. 79 km. **Zikloturista  
taldea.**

**Larregoiko.** Apirilaren 3an, domekan,  
8:30ean Altsasuko Zumalakarregi

plazatik eta 9:20ean Bioitza  
kanpian. 57 km. **Barranka  
txirindulari taldeko mendi bizikleta  
taldea.**

### Tailerrak

**Henna.** Martxoaren 25ean, ostiralean,  
18:00etan Altsasuko Intxostiapunta  
gazte gunean.

**Munduko sukaldaritza.** Martxoaren  
28an eta 29an, astelehenean eta  
asteartean, 18:00etan Altsasuko  
Intxostiapunta gazte gunean.

**Emozio adimena: senideak nerbio-  
atake baten puntuan.** Martxoaren  
31n, ostegunean, 17:00etan  
Altsasuko Josefina Arregi klinikan  
hitzaldi tailerra. Izena emateko: 948  
275 252ra hots egin.

### Azoka

**Azoka.** Martxoaren 27an, igandean,  
11:00etatik 15:00etara Etxarri  
Aranazko plazan.

### Bestelakoak

**Kulturak ezagutzen, txapelketa.**  
Martxoaren 26an, larunbatean,  
21:15ean Altsasuko Intxostiapunta  
gazte gunean.

**Haurrendako jolas parkea.**  
Martxoaren 30ean, asteazkenean,  
11:30etik 13:30era eta 16:30etik  
19:30era Etxarri Aranazko frontoian.

**Sakanako Industrialdeen  
Inbentarioaren aurkezpena.**  
Martxoaren 31n, ostegunean,  
17:00etan, Arbizuko Utzugane,  
Sakanako Garapen Gunean.

**Karbono aztarnaren  
kompentsazioarako ziurtagiriaren  
aurkezpena.** Apirilaren 7an,  
ostegunean, 16:00etan Altsasuko  
Iortia kultur gunean. **Txartel kopia  
denda.**

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!**  
Martxoaren 25ean, ostiralean,  
20:00etan Irurtzun, Uhartte Arakil,  
Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz,  
Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko  
azken ostiraleko elkarretaratzea.

**XIX. Independentzia eta  
sozialismorantz abian.** Martxoaren  
26an, larunbatean, 13:00etan Etxarri  
Aranazko plazan.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!**  
Martxoaren 27an, domekan,  
20:00etan Altsasuko plazan,  
elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!**  
Apirilaren 1ean, ostiralean, 20:00etan  
Arbizuko eta Etxarri Aranazko  
plazetan, elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!**  
Apirilaren 3an, domekan, 20:00etan  
Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

## Hurrengo

# ZUZENEKO SAIOA

## apirilaren 8an

Asteartetik ostegunera  
**Metropoli forala**

9:00etatik 11:00etara

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE



# Burunda Txirrindulari Taldea 2016



**47 neska-mutiko Burunda Klubean.** Larunbatean aurkeztu zuten 2016 denboraldia. Burunda Txirrindularitza Taldeak argi ditu zeintzuk diren taldearen helburuak "Lasterketak irabaztea polita da baina guk neska-mutikoak hezi nahi ditugu, pertsona bezala trerabatu. Lagunak egin dituzatela, talde lana egiten jakin dezatela, diziplina har dezatela, arauak betetzen jakin dezatela, balore horietan hezi nahi ditugu" nabarmendu du zuzendaritzako kide Corka Mintegi. Nafarroako egutegian aritzeaz gain, kadeteak eta juniorrak Euskal Herriko zenbait probatan ibiliko dira. Bestalde, aurtten juniorrek Errioxako Bueltan parte hartzea nahi dute. Burundekoek.

Oscar Quererek jarraitzen du Burundako presidente lanetan. Alboan Iñaki Lasa (presidente ordea), Corka Mintegi (idazkaria), Ismael Perez (diruzaina), Joxean Begiristain, Goyo Chamorro eta Mikel Uncilla ditu. Entrenatzaileek eta sentartekoek gustura egiten dute lana klubak aurrera egiteko.



**HASIBERRIAK**

**PROMESA:** Almar Azaña Bergera, Xabier Curriel Peña, Izal Igeitz Irizar, Unai Gomez Lopez de Goikoetxea, Asier Flores Agirre, Markel Lizarraga Lopez de Goikoetxea, Alex Gonzalez Juanez, Ion Unai Gonzalez Manteru eta Aitzol Hernaz.  
**HASIBERRIAK:** Ekaitz Perez Barrenechea, Ekine Agirre Lopez, June Etxeberria Anton, Maider Ondarra Lopez, Ion Aierbe Senar, Iker Begiristain Andueza, Pablo Senosiain Calarza, Iker Gomez Lopez, Ekain Imaz Perez, Hegoi Garcia Duran, Oihan Arregi Cano eta Asier Apaolaza Martinez.  
**KIMUAK:** Asier Etxeberria Anton, Mikel Regil Fernandez, Aitor Barandalla Granizo, Mikel Lizarraga Senar, Oier Agirre Lopez, Julen Guerrero Carrasco, Ander Villalobos Hernaz, Mikel Uncilla Aldasoro, Unax Trevejo Rodriguez eta Nahia Imaz Perez.  
**HAURRAK:** Oihan Etxeberria Anton, Ion Chamorro San Martin, Willy Torres Lucero eta Iker Mintegi Claver. **ENTRENATZAILEAK:** Ismael Perez Auzmendi eta Corka Mintegi Mazorriaga. **BABESLEAK:** Qualery, La Tasca de Don Jose eta Kataalde.



**KADETEAK:** Unai Villalobos Hernaz, Josu Jaca Parrizas, Ailetz Lasa Lizarraga, Mateo Gonzalez Torres eta Marcos Pison Benito. **ENTRENATZAILEAK:** Ion Irigoien Fresneda eta Aritz Irigoien Fresneda. **BABESLEAK:** Quesos Albeniz eta Makor.



**JUNIORRAK:** Oihan Vinaigre Diego, Odel Zia Lopez, Daniel Izquierdo Sanez-Torres, Juan Riaño Lopez, Alex Uncilla Aldasoro, Asier Etxeberria Zafra eta Xabier Maiza Betelu. **ENTRENATZAILEAK:** Tomas Martínez Viedma eta Aritz Irigoien Fresneda. **BABESLEAK:** Quesos Albeniz eta Makor.

**BABESLEAK**





Zoila Berastegi

astekoa

## Hiztegia: **hitzak egi eginak**

**A-Animalia:** Izaki bizidunen talde handi bat. Zeluanitzak. Beste izaki batzuk kontsumituz elikatzen dira. "Anima" hitzetik dator, "arima" hitzaren parekidea.

**B-Bonbardaketa:** Bonbardaketa ekintza. Arerioaren indar edo baliabide ekonomikoak deuseztatu nahian burututakoa.

**D-Deserria:** Erbestea.

**E-Errefuxiatu:** Gerra, politika, erli-

jio, arraza-arrazoak edo bestelakoak direla medio, bere herrialdea utzi eta beste batera ihes egin behar izan duen pertsona.

**F-Familia:** Ahaidetasun hurbilak eta lokarri biologiko zein emozionalak lotzen dituzten kideen multzoa. Egitura sozialaren oinarria.

**G-Gose:** Jateko beharra, nahia edo gogoa.

**H-Haur:** Gizaki oso gazte edo txi-

kia.

**I-Ito:** Arnasa hartu ezinik edo arnasa hartzea eragotzirik hila.

**J-Jaramonegin:** Norbaitez edo zerbaitez arduratu, zaindu, kontu egin.

**K-Kirats:** Usain guztiz txarra eta jasangaitza.

**L-Lotsa:** Nork bere izen edo duintasunaren kaltegarritzat jotzen dituen egoerak edo ekintzak sor-

tarazitako sentimenduingarria.

**M-Muga:** Elkarren ondoan dauden bi lurralde, herrialde, jabeago... bereizten dituen irudizko marra edo gunea.

**N-Negar:** Atsekabea edo mina malkoak isuriz edo eskuarki aienez adieraztea.

**O-Ondorio:** Ekintza, egoera edo gertaera batetik berez segitzen den ekintza, egoera edo gerta-

ra; emaitza, efektua

...

Zenbat hitz daude hiztegi batean? Hizki bakoitzeko zenbat? Errealitatea hiztegi hitzenerakusleio bat besterik ez bada, zergatik ez "A-amets", "B-babes", "D-duhintasun", "E-elkartasun". Zergatik ez "L-lagun", "M-maitasun"? Zergatik ez "O-ONGI ETORRI"?

Zergatik ez?

## barrutik kanpora

# Kalte-ordainketa berriak istripu baten ondoren

Gobernuak legegai bat onetsi du zirkulazio istripuen kalte-galerearen baremoa aldatzeko. Aurreko sistema 1995ekoa da eta arlo honetan Espainia Europako herrialde aurreratuenetarikoen atzean ezartzen zuen.

Aldaketa garrantzitsuen artean, istripuen ondorioz heriotzaren edo arrastoen kalte-ordainen igoera dago. Administrazioaren arabera, heriotza ordainak %50a igoiko dira eta arrastoek %35a,

bat az beste.

Hona hemen bi adibide soilik: urtean 60.000 euro baino gehiago irabazten duen mediku emakume batek zango baten anputazio partziala jasaten badu, gaur egun gehienez 350.000 eurotako kalte-ordaina bat jasoko luke eta baremo berriarekin, 750.000 euro kobra litzake, %114ko ezberdintasuna. Hildakoa 40 urteko familiako aita bada, 38.000 eurotako irabazi garbia duena, 30 urteko

alarguna eta hiru, sei eta hama-bi urteko semeak uzten dituen, aita eta anai bat ditu ekonomiki menpekoak ez direnak; senideek 335.519 euro jaso ordez 671.480 euro jasoko lituzkete, %100 gehiago.

Arautegi berriak etxeako andreak ere babesten ditu. Horrela, etxeako "funtsezko" lanak egiteko ezinduta gelditzen diren pertsonen lanbide arteko gutxieneko soldataren %55a jasoko dute,

adingabeko haurrak, ahalmen urriko haur eta 67 urte baino gehiagoko arabera goratuko dena. Kontutan hartuko da ere oraindik lan merkatuan hasi ez diren pertsonen lanerako gaitasun galera osoa, adingabeko edo ikasleena bezala.

Arautegi berriarekin hobetuko den beste arlo bat hau da: 14 urte baino gazteagoek kalte-ordaina jasoko dute, hauen erantzukizuna alde batera utzita. Orain arte,

oinezkoen kasuan semaforoa gorritan gurutzatzen zuen haur bat kalte-ordainik gabe geldiliteke. Legegaiak ezartzen du hamalau urte baino gazteagoen erruak "kalte-ordainketa ez duela ezetzatzen edo murrizten" eta ordainketaren erantzukizuna guraso edo zaindareie eskatzeko aukera baztertzen da.

**Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte**

## hara zer dien

# Zer egin hobeto elikatzeko?

Zahartze bidean bizi kalitate ona mantentzen lagunduko duen alor garrantzitsu bat elikadura da. Izan ere, nahiz eta gaixo egon, garapen egoki bat ahalbidetuko du.

Norberaren gustuak eta lehen-tasunak identifikatu behar dira monotonia alde batera uzteari begira. Horrela, gurekin bat datozen aukerak erabili ahal izango ditugu.

Elikagaiak eta hauek prestatzeko moduak aldatzen joan (kolorea, zaporea, tenperatura), teknika ezberdinak erabili (baporea,

erregosia, labea, sueztitua), aurkezpena zaindu eta erakargarria eta desiragarria egin. Otorduen arteko denboran ura edan.

Jakiak denborarekin prestatu, giro lasai batean. Bakarrik egonda ere, txikitik ikasitako ohiturak mantendu; atondutako mahai batean bazkaldu, beharreko guttia bertan izan (edaldontzia, likidoak, ogia...); jateak plazer bat izan behar du, ez betebeharrak.

Janaria plater txikietan atera edo jaki guztiak plater bakar batean jarri. Jaki oso beroak eta sal-

dak saihestu; azkar asetzen dute eta onura gutxi dakarte. Ez hartu osagarririk gabeko barazki eta entsaladak; asebetetzen dute, baina kaloria gutxi ematen dute. Dietari zuntza gehitu.

Egunean bost otordu egin. Dementzia, Parkinson, depresio edo digestio arazoak daudenean, aldiz, 6-7 otordutan jan. Otordu hauek energia eta proteina edukitua izan behar dute, eta murtzikatzeko eta irensteko errazak izan behar dira.

Nola gehitu energia gure elika-

durari? Honako hauek gehitu: marmelada, oliba olio, esne-krema, ezti, almibarra, erregina-jelea, gozoki likidoa, kakaoa, fruitu lehorrak eta abar.

Proteinak eransteke, berriz, osagai hauek erabili: arrautza zuringo egosia edo merengean, arrautza egosi eta txikitua, esne-hautsa, gazta (birrindua, laukitxotat, igurztekoa edo freskoa), jogurt saltsak, bexamela, esnea edo jogurta.

**Josefina Arregi Klinika**

## ERREDAKZIOAREN OHARRA >>

Aurreko astean, 7. orrian, Josefina Arregi klinikari buruzko albisteak laguntzen zuten tauletako baten titularrean okertu egin ginen: Eguneko zentroaren erabiltzaileak (25 plaza) jartzen zuten, baina ospitalearen erabiltzaileak (21 ohe) jarri behar zuten.

**1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu behar dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net** edo **948 564 275** telefonoa.

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea eta Saioa Lizarraga Iturralde  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Erkuden Ruiz Barroso  
**ZUZENTZAILEA:** Garazi Barandalla  
**ARGITARATZAILEA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus  
**ADMINISTRATIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

## LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK** 

**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Salburuzordetza

**ETXERAKO EGUR LOTEAK ETXARRIN:**

Etxarriarrek etxerako egur loteak eskatze-ko epea apirilaren 25era arte dute zabalik. Haiek eskatzeko bete beharreko baldin-

tzak udaletxeko iragarki taulan daude. Eskabide-orka beteta egin behar da. Loteak 44 euro balio ditu.

# sakanerria >>

**SAKANA**

**Martxoaren 31n, ostegunean, 17:00etan, Arbizun dagoen Utzugane, Sakanako Garapen Gunean aurkeztuko dute**

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) sustatuta Sakanako Industrialdeen Inbentarioa sortzen ari dira. Horretan buru-belarri ari da SGAn energia, industria eta zerbitzuek arduratzen den Aitor Eguzkitza Diego. Berak argitu digunez, "inbentarioa Sakanan dagoen industriaren inguruko datu geolokalizatuak osatzen dute. Haiek gorde eta kudeatzen ditugu". Gaur egun datu bilketa fasean daude, baina orain arteko lanaren aurkezpena egingen dute. Aurkezpena Arbizuko Utzubar industrialdean dagoen Utzugane, Sakanako Garapen Gunean egingen da, heldu den ostegunean, hilak 31, 17:00etan. Interesa duten udaletako kide eta enpresei zuzenduta dago aurkezpena. "Inbentarioa zertan datzan jakin eta proposamenak egiteko aukera izanen dute".

Eguzkitzak azaldu digunez, "inbentarioa plataforma batean kokatutako datu-base bat izanen da, non industriari buruzko datuak eta geografia datuak elkartuko diren". Plataforma sartzeko hain-

## Garapenerako tresna, Sakanako Industrialdeen Inbentarioa

bat aukera izanen dira. Publiko orokorrak ez du sarbiderik izanen, baina bai udaleketa enpresariak. Inbentarioak bi datu mota jasoko ditu, batetik, ibarreko industrialdeen eta, bestetik, han dauden enpresei buruzko datuak.

**Gunez**

"Inbentarioak industrialdea aktibo dagoen edo ez, eskaintzen dituzten zerbitzuen zerrenda eta beste datu batzuk jasotzen ditu". Eguzkitzak aukera horren erabilera praktikoa baten adibidea jarri digu: "Sakanan kokatzeko interesa duten enpresek industrialde bakoitzeari saltzeko edo alokatzeko dauden lursailedo pabilioien berri izateko balio du". Inbentarioak, beraz, "Sakanan kokatzeko interesa dutenen beharrei gehien hurbiltzen den industrialdea begi kolpean aukeratzeko aukera ematen du".

Bestalde, inbentarioa udalen industrialdeen kudeaketa errazte-



Lakuntzako industrialdeko ikuspegia.

ko tresna ere izanen da. "Inbertsioak egiterakoan, dauden aukerak eta beharrak ezagutzeko aukera emanen die, poligono horiek aurrera eramateko". Etorkizunean udalek jardura ekonomikoen gaineko zerga inbentarioaren bidez kudeatzeko aukera izan dezaten lanean ari da Eguzkitza.

Horrek merkatuak zabaldu eta ekoizpena handitzeko aukera ematen duela uste dute SGAn. "Elkarrangandik hurbil egonda ere, batzuetan ez dago argi besteak zer egiten duen".

Enpresek bestelako erabilera eman diezaioke inbentarioari: "Sakanan bertan hedatu nahi izanez gero, zein lursail edo pabiloi dauden jakiteko aukera izanen dute. Edo saldu nahi badute, horretarako aukera ere ematen du".

**Beste erabilerak**

Estatistikak ateratzeko, industriaren aktiboen dauden guneak, non ez dauden aktibo eta zergatik... Horrela datuak emanen dituen eta kudeaketa erraztuko duen plataforma da inbentarioa.

**Enpresak**

Sakanako Industrialdeen Inbentarioak gune horietan dauden enpresei buruzko informazioa ere jasotzen du, zein arlotan lan egiten duten eta beste. SGA informazioa jasotzen ari da orain. Horrekin, sektore berean ari diren enpresen arteko lankidetzak sustatu nahi da.

## Aralarko santutegia Aste Santurako prest

Fededun ugariaren topaleku bihurtuko da, atzera ere, Aralarko santutegia Aste Santuan. Fededunen etorrerari erantzuteko elizkizun egutegia ere zehaztu dute. Hala, bai Ostegun bai Ostiral Sainduan mezak 17:00etan izanen dira Aralarren. Larunbatean elizkizuna 20:00etan izanen da. Pazko egunean, igandean, 12:30ean izanen da meza nagusia. Akaberan Aralarko aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen da.

Aralarko aingeruak urteroko herriz herriko ibilbidea igandean abiatuko du, 16:30ean. Santutegia utzi eta oinez, Atatik bar-

nako bidetik Baraibarrera eramaten dute. 19:00etan iritsiko da hara. Pazko astean zehar aingeruaren irudiak Larraun eta Araitz ibarrak bisitatuko ditu. Baina, hurrengo larunbatean, apirilaren 2an, Uharteko Arakilera iritsiko da, 19:45ean. Aingeruaren irudia bertan dela, Oskiako ermitan meza izanen da apirilaren 3an, igandean, 12:00etan. Elizkizun horrek arakildarrak elkartuko ditu. Oskiaren ondoren, apirilaren 4an, Aralarko aingerua Iruñean sartuko da, 19:00etan. Han emanen du aste osoa, ohiko bisitak egiten.

## Mank-ek euskarazko udalekuen berri eman du

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskara hutsezko udalekuen eskaintzaren berri eman du. Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Mailako ikasleei zuzendutako eskaintza da. Mank-ek euskara hutsez dagoen udalekuen eskaintzaren berri esku-orreran jaso du eta horiek ikasleei banatu dizkie. Euskara Zerbitzuti jakinarazi dutenez, udan euskarazko udaleku batera joaten denak diru-laguntza eskatze-ko aukera izanen du. Horretarako epea 2016ko garagarriaren 15etik irailaren 30era izanen da. Mank-ek laguntzetarako 5.000 euroko diru-saila bideratuko du.

## Babestutako Gizarte Enpleguak badu diru-laguntza

**Mankomunitateek udaberri aurretik jaso dute laguntza**

Sakanako oinarritzko gizarte zerbitzuen hiru mankomunitateek langabeak kontratatzeke Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jaso dute. Mankomunitateek 369.458,82 euro izanen dituzte hainbat pertsona kontratatzeke. Haietako gehienek gizarteratzeke errenta jasotzen dute. Kontratazioak babestutako enplegu sozialeko programaren bidez egingen dira; haren barnean, laguntza soziala eta prestakuntzako ekintzak ere

sartzen dira, pertsona horiek lan merkatuan errazago sar daitezten.

Programa hori finantzatzeko, Nafarroako Gobernuak sei milioi euro bideratu ditu, joan den urtean baino lau milioi gehiago ia. Programaren erdia Europako Funts Sozialaren bidez kofinantzatuta dago.

Gizarte Enplegurako diru-laguntzak	
Mankomunitatea	Diru-laguntza
Irurtzun	128.908,13
Etxarri Aranatz	95.142,54
Altsasu	145.408,15
<b>Guztira</b>	<b>369.458,82</b>

APIRILAK 9



**10:00etatik 12:00etara**  
**Yoga Magiko klasea**  
Omkar Carabiarekin (10€)

**19:00etan Kontzertua**  
**Maite Itoiz eta John Kelly**-rekin  
«Barneko bidaiak mila urte musikaren bidez»  
(Sarrerak: 15€ · Takilan: 20€)



**Amari yoga eskola egoitza** • Arbizuko eko kanpina • amariyoga.com • nebani9@yahoo.es • 630 777 130

## &gt;&gt; Altsasu

# Etorkizun “ezegonkorra” Arcelor Mittaleko langileendako

**Madriletik Altsasura hogeit bat familia etorri ziren. Arcelor Mittaleko Gipuzkoan dituen lantokietan lan egiteko lekualdatu zituzten. “Ezgonkotasun” egoera nabaria da eta Madrilan jasandakoa biziberritzen ari dira orain.**

Erkuden Ruiz Barroso

Maiatzean lau urte beteko dira Madrilgo Arcelor Mittal lantokia itxi zutela. Langileak lekualdatu zituzten: Zumarraga, Olaberria, Zaragoza edo Asturias aukeratu zezaketan langileak. 70 bat lagunek Gipuzkoara etortzea erabaki zuten, eta haietako hogeit Altsasura bizitzera etorri ziren. Batzuk familiarekin etorri ziren, beste batzuk bakarrik. Zumarragako lantokiaren itxieraren albistea “sorpresa” bat izan da, ez zutelako espero. “Betidanik entzun dugu Zumarragako lantokia itxi behar zutela, Madrilgoa itxi aurretik ere entzuten genuen. Baina azken aldian ez zen ezer entzuten. Egun batetik bestera izan da”. Gabriel Fernandez Madriletik etorri zen eta Altsasun bizi da. Olaberriako lantokian lan egiten du, baina Zumarragako lantokiaren itxierak “ezegonkortasun” egoera batean uzten dutela azaldu du. “Ez dakizu hurrengoak gu izango garen”.

Madrilengertatutakoa errepikatzen da Zumarragan. Madrilko lantokia “ongi” zihuan, Fernandez esanetan. “Lastailean urtea hutsean hasteko itxi zuten, baina ireki behar zuten. Azkenean ez zen horrela izan”. Enplegu erregulazio-ko espedienteak aurkeztu zuten eta maiatza arte manifestazioak, kontzentrazioak, eta abar egin zituzten. “Baina ez zuen ezertarako balio izan”. Langileak estatuko beste lantokietara lekualdatu zituzten. Fernandezek Zumarragako lantokia itxi ondoren langileak lekualdatu-



Sakanako kamioilariak Zumarragan lan egiten dute ere. ERKUDEN RUIZ BARROSO

ko dituztela azaldu du.

## Lekualdatzeak

Lekualdatzea prozesu zaila izan zen. “Aitortu behar dut errepidean etortzen nintzela negar egin nuela”. Lehenengo egunak lantokian ere ez ziren errazak izan. “Buruak asko egiten du”. Baina azkar moldatu ziren. “Oso ongi hartu gintuzten eta eskertzekoa da. Jasandakoarekin nahikoa dugu lanean ere gaizki egoteko”. Hasieran hizkuntza arazo bat zen, baina azkar moldatu ziren ere. “Orain euskararen kontuarekin txantxak egin ditzaket, lehen horma bat bezala zegoen”. Beste hainbat lekuetan ez zen berdina gertatu: “Kontatu didatenez Zaragozan oso gaizki hartu omen zituzten”. Fernandezek Altsasun ere bizitza egitea lortu du.

Baina haiek pasatutakoa Zumarragakoek jasan dezakete orain. Zumarragako lantokia itxi eginen dute eta enpresak langileak lekualdatu nahi ditu. Madrildik Altsasura bizitzera etorritakoak ere lekualdatuko dituzte. “Altsasun daudenak Gipuzkoa-

ko lantokiak nahiko dute, izan ere, familiarekin etorri direnak dagoeneko hemen bizi bat hasi dute eta orain berriz aldatzeak ezegonkortasuna sortzen du; lau urte hemen, beste lau urte han...”. Batzuk etxea alokatzen dute, Fernandezek bezala, baina badira hipotekak eskatu dituztenak ere. “Pentsa, orain zer egin behar dute?”. Fernandez bakarrik etorri zen emazteak Madrilan lana zuelako eta bederatzi urteko ume bat ere utzi zuen Madrilan. “Bakarrik zaudenean batzuetan mundua erortzen zaitu; azkenean ohitzen zara”. Hemengo ingurugiroarekin “oso gustura” dagoela aitortu du Fernandezek. “Bere alde positiboak izan behar ditu ere”. Egoerari aurre egin ezin ziotenak ere egon ziren, eta lana utzi zuten.

Fernandezek enpresa “egoera estutzen” ari dela esan du. Izan ere, Madrilgoaren ondoren Sestao eta Zumarragako etorri dira. Langileak lekualdatuko dituzte, baina geroz eta leku gutxiago dago. Olaberrian ongi daude, baina gertatukoaren harira, “nork daki”.

## &gt;&gt; Arakil/ Irurtzun

## Astelehen Zoriontsuak

**Izen hori hartu du testuen eta ikus-entzunezkoen inguruan iritziak partekatu eta euskaraz hitz egiteko sortu berri den taldeak**

Hilaren 11rako eginda zegoen deialdira 10 bat pertsona aurkeztu ziren. “Zerbait egiteko gogoia ikusi nuen. Hasiera nahiko polita izan zen”. Inor animatuz gero “esku zabalik” hartu dutela jakinarazi dute. Pello Astiz Auzmendirenak dira azalpenak, iritziak partekatze taldea sortzeko deitzaileetako batena. “Hasiera batean kritika taldea izena jarri genion baina hainbat gauza izan daiteke: kritika, hausnartze, iritzi taldea, ez bakarrik kritika”. Irakurritako testuen (artikuluak, erreportajeak, liburuak) edo ikusitako ikus-entzunezkoen (telebista saioak, filmak, sareetako bideoak) gainean taldekideek dituzten iritziak partekatze gune bat da talde sortu berria. “Irakurritakoa eta ikusitakoa norberaren barruan gelditu beharrean, taldera ateratzea eta besteen iritziak entzutea da egin nahi duguna”. Taldeasortu berria da eta saioen antolakuntzan inolako adar zehazteko dute, “auzolan modukoa izanen da, taldeen karpenekin egingen du aurrera edo ez” gaineratu du Astizek.

## FUNTZIONAMENDUAZ

Astelehen Zoriontsuak izenak argi azaltzen duen moduan, astelehenean elkartuko dira, hilean behin, arratsalde-iluntze batean, Arakilen edo Irurtzunen. Astizek azaldu digunez, “bakoitzak gustuko izan duen zerbait eramanen du eta horren inguruan hitz egingen genuke. Dokumental bat, film bat, dena delakoa izan daiteke eta horren inguruan gure iritzi eta hausnarketak kaleratuko ditugu”. Taldekideen arteko hizkuntza euskaraz izanen da, bai deialdi tarako bai elkartzen direnean ere. “Gerta daiteke erdarazko artikulua bat interesgarri suertatzea eta haren inguruan euskaraz hitz egitea”.

## Apirila 18

Astelehen horretan, 19:30ean, Hiriberriko Txitera elkartean elkartuko da estreinako. Bidador pastoralak ikusi eta iritziak trukatu dituzte.

## Ezbehar txikiei aurre egiteko prest

Azkeneko lau asteartean Arakil aldeko 45 guraso lehen sorospen ikastaroan izan dira. Hasieran hiru saio aurreikusitak bazeuden ere, gurasoen eskariz, DYAKO hiru boluntarioek beste saio bat eman zuten. Haien bidez, gurasoek zauri edo ezbehar txikiei edo handiagoei nola erantzun ikasi zuten. Tailerra Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Atakondoako guraso elkartearekin batera antolatu zuen.

## SAKANA

## Emozio adimenaz ahaldundu Alzheimerri eramangarriago egiteko

**Martxoaren 31n, ostegunean, 17:00etan Altsasuko Josefina Arregi klinikan hitzaldi tailerra. Izena emateko: 948 275 252ra hots egin**

Alzheimer gaixoen senideen Nafarroako elkarteak, AFANek, emozio adimenari buruzko tailer hitzaldia antolatu du. Gaixoen senideei zuzendutako saio horretan Alzheimerri duten pertsonekin eguneroko elkarbizitza nola aurre egin erakutsiko da. Aldi berean, senideak estresatzen dituzten egoeren aurrean beste ikuspegi bat garatzeko bidea izanen da. Horrekin batera, gaixoen ondoan dauden euren emozioak ulertu eta onartzeko bideak azalduko dituzte. Horrekin batera, eguneroko egoerei aurre egiteko, portaera trebetasunak erakutsiko dituzte. Umore sena garatzeko gakoak ere azalduko dituzte.

## &gt;&gt; Altsasu/ Dorrao

## Motxila 21 Iortian

**Apirilaren 7an, 8an eta 10ean musika taldearen Londongo birari buruzko filma ikusgai izanen da**

Maletak egin eta Londongo bidea hartu zuen Motxila 21k 2013ko agorrilean. Aipatutako musika taldea Nafarroako Down Sindromea Elkartean abaratu sortu zen eta bere kideen artean Aintzane (saxofoia) eta Ainhoa Lizarraga (akordeoia) dorrobarrak daude. Londonen musikari ingeles autistekin osatutako The Autistix taldearekin batera kontzertuak eman zituzten. Bost egunez musikaz eta laguntasunaz gozatzeko aukera izan zuten Motxila 21 taldekideek. Iñaki Alforjak birako bizipenak eta abenturak *MOTXILA 21 London tour: Getting down in London* dokumentalean jasozituen. Aniztasuna, errespetua, laguntasuna, sormena, rocka, musika, baina batez ere pertsonak dituzten dokumentalak eta apirilko bigarren asteburuan Altsasun ikusteko aukera izanen da.

## &gt;&gt; Altsasu

## Karbono-aztarna konpentsazioaz

**Apirilaren 7an, ostegunean, 16:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean**

Txartel kopia-dendako Alberto Anguianok karbono-aztarnaren konpentsazioari buruzko hitzaldi-etzabaida antolatu du. Ingurumenarekin errespetagarria den inprimatze berdearen inguruan azalpenak emanen ditu Anguianoren bazkide teknologikoa den Ricoh etxeko Carlos Casado Meredizek. Saioan papera euskarri jasangarria ote den azalduko du. Hizpide izanen ditu ere komunikazioaren kostu erreala eta karbono-aztarnaren definizioa. Aztarna hori konpentsatzeko egin daitekeena azalduko du Txartel kopia-dendaren adibidearekin.

## &gt;&gt; Olatzagutia

## Infernuerreka elkarteak badu logoa

**Ostiralean, hileko azkena denez, herriko tabernetan pintxo bereziak dastatzeko eta saria lortzeko aukera izanen da**

Olatzagutiako sei taberna eta kafe-tegi batzen ditu Infernuerreka elkarteak: Clinker, Erburua, Barandi, Aixeleku, Bujanda eta Agedi. Elkarteak antolatutako ekitaldien berri emateko irudi identifikatzaile bat nahi zuten eta, horregatik, logotipo lehiaketa antolatu zuten. Laura Imazen proposamena aukeratu dute. Sortzaile olatziarrak herriko dendetan gastatzeko 120 euroko saria eskuratu zuten.

Herriko ostalaritzari bulkada eman asmoz elkartu dira sei tabernak. Bezeroei ostiralero pintxo potea eskaintzen diete. Baina hileko azken ostiralekoa Infernuerreka potea da eta taberna bakoitzak pintxo berezi bat egiten du. Osti-



Elkarteko kideak logotipoa egin duen Laura Imazekin. UTZITAKOIA

ral honetakoak txerrikia izanen du oinarri. Tamaina txikiko gutziak dastatzen dituztenek txartel bat jasoko dute. Txarteletan sei tabernen zigiluak biltzen dituztenek tabernetan kontsumitzeko 20 euroko sari baten zozketan sartu-

ko dira. Martxoan Clinkerrek eman du saria. Otsailaren 26an abiatu zuten ekimena eta Olatzagutiako tabernetan giro paregabea egon zela azaldu digute. Infernupoteoan parte hartzera animatu dituzte olatziarrak.



## SAKANA

**Udal maparen berrantolaketa nola izatea nahi luketen aztertu zuten bilera batean**

Leitzarar, Basaburua, Imotz eta Sakanako 50 bat hautetsi Irurtzunen elkartu ziren pasa den ostegunean. Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioak egindako deialdia zen. Nafarroako Gobernuak toki administrazioaren mapa, udal mapa, berrantolatu behar du. Hori dela eta, federazioak toki erakundeek lege berrirako dituzten proposamenak jaso eta jarrerak zehazteko eskualdekako zortzi bilera deitu ditu. Irurtzungoa haietako hirugarrena izan zen. Hiru saiotan 160 bat hautetsi elkartu ziren.

Talde dinamiken bidez hautetsiek hiru gairen inguruan iritziak partekatu eta adostasunak jaso zituzten. Lehenik, toki entitateek izan beharreko eskumenak zein izan behar diren aztertu zituzten. Kontzejuek eta udalek zein eskumen izan behar dituzten eta zein ez aztertu zuten, baita arrazionalizatzeko modua zein izan zitekeen ere. Ondoren zein erakunde mota egon beharko lukeen eta nolakoak izan beharko luketen

## Hautetsiak erabakiguneak herrietatik gertu egotearen alde



Talde dinamiken bidez hautetsiek euren iritziak azaldu zituzten. FNMC

landu zuten. Bukatzeko, toki erakundeekin finantziarioa izan zuten aztergai. Talde dinamiken ondoren, hautetsi bakoitzak galdetegi bat erantzun zuen.

Federaziotik azaldu digutenez,

Irurtzunen bildutakoekin zenbait zerbitzu elkarrekin eman beharra dardela ikusi zuten, bestela, kontzejuek edo udalak txikiak direlako. Hala ere, guztiak elkartutako zerbitzu horiek toki erakundeetatik gertu

egotea nahi zuten. Mankomunitatutako zerbitzuak biltzen zituen erakundeek tamaina txikia eta erabakitze gunea gertu izan behar zituztela uste zuten 50ek. Horretarako, biaukeren alde egin zuten: toki era-

kundeek eskumenak gordetzea eta mankomunitatutako erakundeak laguntzarako talde bat izatea, edo udalek bere eskumenak mankomunitateei edo eskualde erakunde-  
ei uztea eta haiek zerbitzua eskaintzea. Inork ez zuen gauzak dauden eran segitzarik nahi, ezta erabakigunea urrunduten mankomunitate handirik nahi.

### Maiatzerako

Federazioaren bilera erronda apirilaren 29an despedituko da. Bileretan jasotako ekarpenekin eta inkesten emaitzekin federazioak agiria osatuko du. Legearen inguruan lan egiteko federazio barruan hainbat hautetsirekin sortutako deliberazio batzordeak agiria osatuko du. Azken txosten hori Nafarroako Gobernuari emanen diote kontuan izan dezan. Foru administrazioak ematen dituen pausuen arabera federazioak urrats berriak eman ditzake.

### » Irurtzun

## Plazaola, maiatzaren zain

Nafarroako Gobernuak, Ederbide proiektuaren bidez, Plazaolako eta Bidasoako bide berdeak lotzeko asmoa du. Eta egitasmo hori eta herrialdeko beste bide berde batzuk kontinenteko Eurobelo sarean sartu nahi ditu. Ederbide egitasmoa gauzatzeko Nafarroako Gobernuak hiru urtetan 2,4 milioi euro inbertitzeko asmoa du. "Gobernuaren turismo arloko proiektu handia da". Beharrezko finantziarioa lortzeko, proiektua Europako Batasunaren dirulaguntza deialdi batera aurkeztu du eta maiatzean jakinen da beharrezko finantziarioa lortuko den.

Horrek Plazaolako bide berdeari bultzada emanen liokeela esan zuen Patxi Saezek, Nafarroako Gobernuak Sakanarako turismo arduradunak. Hilaren 10ean izan zen, Iratxo elkarteak Irurtzunen Plazaolari buruz antolatutako

mahai inguruan. Saezek bide berdearen egoeraren berri eman zuen: "Andoain eta Irurtzun artean egin dago. Iruña eta Sarasa arteko zatian lurrak desjabetzeko azken pausuak falta dira. Sarasa eta Iruña arteko zatiko lurren desjabetze tramiteak hasi berriak dira".

Saezek jakinarazi zuenez, maiatzeko erantzunaren arabera, proiektua azkarrago edo motelago garatuko da. Plazaola turismo partzuergoak egin du bide berdearen proiektua. Nafarroako Gobernuaren oniritzia izanen du eta lanak Espainiako Gobernuak eginen ditu. Saezek Estatuan gobernurik ez egoteak gauzak moteldu ditzakeela gaineratu zuen. Aurreratu zuenez, Latasako geltokian bizikletendako gunea egitea aurreikusia dago. Bi Aizpeko eta Aizkorbeko tunelak itxita daudenez, egitasmoak bide alternatibo-

### Martxa

Iraxok antolatuta Irurtzun eta Iruña arteko mendimartxa egin zen hilaren 13an eta 15 bat mendizalek ibili zuten bidea.

ak aurrekusi ditu.

### Irurtzun

Iraxok antolatutako mahai inguruan Gustavo Ortiz de Barron (Plazaolako turismo partzuergoko gerentea), Floria Pistono (Izagulino alkatea), Juan Mari Albizu (Berriobetiko alkatea) eta Eduardo Murugarren (Irurtzungo alkate-ordea) izan ziren. Azken horrek esan digunez, "Irurtzun orain arte autobidea eta autopistarekin lotzen da". Naturbidea egitea "herrirako ona izanen da, bai ekonomikoki, bai sozialki. Mun-



Hizlariak erdian eta entzuleak inguruan eseri ziren. SOCORRO ALZUETA.

dura zabaltzeko balioko du". Denek eta tabernekin nabaritutako dutela uste du. Sakana zeharkatuko lukeen bidearekin loturak are onura gehiago ekarriko lizkioke.

Gogoratu du Irurtzungo Udala Plazaola turismo partzuergotik aterazela "Latasatik Irurtzunerako proiektuaren zatian arazoak besterik ez zeudelako eta Iruñean inte-

resik azaltzen ez zutelako". Erdian eta ezer gabe gelditzen zirela uste zuten, atera egin ziren. Baina orain, udalak bueltatzeko aukera aztertuko luke. Behin bide berdea gauzatu ahala, mantentze lanak eta beste nola egin zehaztu beharko dituzte. Maiatzeko ebazpenaren zain, natur bidea gauzatzeko zain daude hainbat udal eta eragile.

**Kaixo**  
Kafetegia - Jatetxea

TATETXEA - RESTAURANTE • KAIKO • BAR-CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22  
948.46.91.24 ALTSASU  
www.restaurantekaixo.com

Txooooo!™

**JUANLUZENEAK**  
**SAGARDOTEGIA**

**MAIATZERA ARTE**  
txotx denboraldia zabalik

ODERITZ  
948 604 571 | 680 652 183

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Astehenetik ostiralera  
**Eguneko menua**  
9€

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

Ogiaren artisauek

**PORTUKO** okindegia

ETXARRIARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

## SAKANA



Uharte Arakilgo konpartsa.

## Autismoaz ohartarazteko, erraldoiak

**Irurtzango, Uharte Arakilgo, Lakuntzako eta Olatzagutiako erraldoien konpartsa Autismoaz Kontzientziazteko Nazioarteko Egunean parte hartuko dute**

Nafarroako Autismo Elkarteak (NAE) Autismoaz Kontzientziazteko Nazioarteko Egunerako, apirilaren 2rako, Nafarroako erraldoien konpartsen kontzentrazioa antolatu du Iruñean. Herrialdeko 36 konpartsek parte hartuko dute, 136 erraldoiak. Horien artean Irurtzango, Uharte Arakilgo, Lakuntzako eta Olatzagutiakoak. Jakina, eta haiekin batera, hainbat herrietako gaitariak ere.

### Egitaraua

**10:00etan** Kalejira, Askatasuna plazatik, Karlos III etorbideetik, Gaztelu plazara.  
**12:00etan** Marraski lehiaketako sari banaketa eta Cecilia Gonzalezen kantaldia.  
**12:30ean** Puxika urdinen askatze handia.  
**12:35ean** Erraldoi konpartsen dantzaldia.  
**13:00etan** Duguna fanfarrea.  
**13:05ean** Erraldoien kalejira: Gaztelu plaza, Txapitela, Kaltzeteroak, Udaletxe plaza, Merkatarikalea, Estafeta, zezen-plaza, salestarrak.  
**13:00etatik 15:00etara** Artea kalean.  
**17:00etan** Dantzaldia, Gaztelu plazan.  
**18:30ean** Camarote de Marxen kontzertua.

### Altsasu

## EH Bilduren topaketa irekietan lau gaiz ariko da

EH Bilduk Altsasu 2020 Zehazten topaketa irekiak egingen ditu apirilaren 8an eta 9an. Koalizioak haie-tan landuko diren gaiak herri-bozketara bidez erabaki ditu. Horretarako, udal hauteskundearen aurretik egindako topaketa irekietan aterako gaiak izan ziren oinarria. Eta altsasuarrek proposamen gehiago egin zitzaizkion.

Bozka prozesua despedituta EH Bilduk apirilko bigarren asteburuan lau gaien inguruan ariko direla jakinarazi du: alokairu soziala, Altsasuko alokairu garestie aurre egiteko ideiak aztertzea (48 boto); pergola, estalpe finko bat behean ekitaldiak egiteko, tamaina, kokapena... (45 boto); herriaren irudia, zer da herri garbia? Zer egin irudia aldatzeko? (41 boto) eta helduentzako janari zerbitzua, etxerako zerbitzu hori eskaintzeko aukerak aztertu. (41 boto).

Hondakinen gaiak 35 bozka jaso zituen eta parte-hartzearenak 28. Horretaz aparte, EH Bilduk 15 proposamen berri jaso dituela jakinarazi du; "batzuk gure egunerokotasunean txertatuko ditugu eta beste batzuk etorkizunean antzeko formatuan landuko ditugu". 238 boto jaso ditu koalizioak eta guztietatik eskerrak emandizkie. Aldi berean, apirilko topaketan parte hartzeko deia egin du. Beharrezkoa ez bada ere <http://www.altsasu.ehbildu.es/zehazten> bidez izena ematera animatu du.

### Altsasu

## La Encinak egoitzaren 10. urteurrena ospatu du

La Encina, Extremadurako kultur elkarte, 2002 urtean sortu zuten erkidego hartan sorterrria zuten altsasuarrek. Extremadura ezagutarazi eta hango kultura sustatzen hasi ziren. Lau urteren ondoren Iruñea etorbidean elkarte zabaldu zuten. La Encinaren zentroak 10 urte bete ditu eta bere kideak efemeridea ospatzeko elkarte ziren larunbatean.

Urteurren ospakizunean Nafarroako Parlamentuko presidente Ainhoa Aznarez eta presidente-orde Unai Hualde izan ziren. Baita Nafarroako Gobernuak komunikazio zuzendari Pello Pellejero eta Nafarroako Etxe Erregionalako Federazioko presidente Jaime Valdeolmillos ere. Aznarezek urteurrena oroitarazten duen plaka bat agerian utzi zuen. Ondoren izan zen bazkariak 75 pertsona elkarte zituen. Guztie harrera La Encinako presidente Alberto Garcia Romanek egin zuten, aurretik lehendakari-orde izan zenak, hilabete eta erdi darama elkarte buru gisa. Elkarrekin gaur egun 88 kide ditu. Haietatik 54 egoitzaren erabiliztaile dira eta gainontzeko 34ak kultur sustapeneko ekitaldiak laguntzen dituzte. Altsasu eta Extremadura arteko zubi izateko Extremadurako astea antolatuko dute irailean. Eta elkarte kideen arteko harremanak sendotzeko hainbat jarduerak antolatzen dituzte ere.

### Arbizu

## Ainara Ladron epaitua eta aske

Segi gazte erakundearen kontrako epaia salatzeko 2007an AP-8 autobidea itxi zuten bost gazteen kontrako epaiketa ostiralean egin zen. Fiskalak bere espetxe zigor eskara bi urte eta erditik 21 hilabetera jaitsi zuen. Epaituen artean Ainara Ladron arbizuarra zegoen. Epaiaketa hori lau aldiz atzeratu da. Azken epaituetako hiru epaietara ez agertzeagatik, haietako bat arbizuarra. Horregatik, bi aste preso eman ditu, Logroñon urrunduta. Epaiaren zain, arbizuarra aske gelditu zen.



### Olatzagutia

## Rallya bertan bera uzteagatik beste iritzi bat

Olatzagutia eta Altsasu artean martxoaren 19 eta 20rako antolatutako rallyak iritzi trukea sortu du sare sozialetan eta herritarren artean. Probako antolatzailea den Sakana Motorsport taldeari erantzunez, idatzia zabaldu du olaztiar talde batek. Lehenik, sare sozialetan eta zenbait olaztiarren artean "bi herritar" Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiaren arduradun egin dituztela azaltzen du. Idatzian "saiakera horrekoso etikoa" ez dirudiela adierazten da. Jokabide horrekin zer bilatzen den galdetuz, "jende askori proba astakeria iruditzen zaio eta, horrela, haien ahotsak isildu nahidituzte?" Hala ere, "herriko dermion probat baimentzeko edo ez, bi olaztiarrek halako ahalmenaz zuten sinesgaitzada". Ingarumen departamentutik jakinarazi digutenez, ez dute proba debekatzeko eskaerarik jaso.

Idatzia egileek antolatzaileen eta zaleen "frustrazioa" ulergarria dela diote. "Baina zerbaitek kalte egin badie antolatzaileek izandako presa izan da, ez baitu baimenak eskutan izan arte itxaron. Antolakuntzak, unero, proba arazorik gabe egin zitekeela uste izan du". Bestetik, idatzian basoa guztiena dela eta hura zaintzea guztien ardurua dela nabarmen-tzen da. "Arbasoek zaindu zuten moduan zaindu behar da, etorkizuneko belaunaldietan pentsatuz. Baina halako lasterketa bat ez doa norabide horretan". Nafarroako Gobernuaz aparte "natura babestearen alde lan egiten duten Gurelur eta Lurra erakundeak halako probarik ez egiteko aholkatu" dutela azpimarratzen da idatzian. Etorkizunean egoera ez errepikatzeko "ahalik eta kontsentsu handiena" bilatzeko eskaera eginez despeditzen da idatzia.

## Sakanako birziklatze tasa

Papera eta kartoia	2012	2013	2014	2015	2014-2015 aldea
	932.640	935.500	1.004.320	1.058.270	53.950 %5,37

Bilketa sistemak	Jasotakoa	%
Altsasu	427.740	40,42
Irurtzun	132.240	12,5
Atez atekoa	437.240	41,32
Mistoan	61.050	5,77
Industrialdeak	238.908	22,58

Sakanan paperaren eta kartoiaren bilketak %5,37 egin zuen gora joan zen urtean, 1.058.270 kilora iritsiz. Jasotakoaren %77,42 (819.361 kilo) hiri hondakin gisa jaso zen eta gainontzeko %22,58 (238.908 kilo) industrialdeetan. Sakandar bakoitzak 52,11 kilo paper eta kartoi birziklatu zituen, 2014an baino 3,13 kilo gehiago.

Beira	2013	2014	2015	Aldea
	642.580	669.200	587.455	-81.745 %-12,21

Bilketa sistemak	Jasotakoa	%
Altsasu	216.847	36,91
Irurtzun	58.951	10,03
Atez atekoa	248.389	42,28
Mistoan	63.268	10,77

Iglu itxurako edukiontzietan jasotako beiraren kopurua %12,21 jaitsi zen 2015ean.

Olio	2013	2014	2015	Aldea
Ecograsen bilketa	14.110	15.740	12.576	-3.164 %-20,1
Garbigunea	5.497	5.407	7.973	2.926 %47,46
Guztira	19.607	21.147	20.549	-598 %-2,83

Bilketa sistemak	Jasotakoa	%
Altsasu	5.366	26,11
Irurtzun	1.625	7,91
Atez atekoa	5.259	25,59
Mistoan	326	1,59
Garbigunea	7.973	38,8

2014arekin alderatuz olio bilketan %2,83ko jaitziera izan da. Ecograsek elkarteetan eta ostalaritzan egindako bilketa bosten bat jaitsi da eta ia bikoiztu garbigunean jasotakoa. Sakandar bakoitzak pasa den urtean 1,01 litro olio birziklatu zituen.

Ehunak	2013	2014	2015	Aldea
Humana edukiontzietan	50.285	62.253	65.086	2.833 %4,55
Euskadi-Congo edukiontzia	-	-	7.500,24	0 %0
Emausgo trapuketariak	36.450	61.465	16.265	-45.200 %-73,54
<b>Guztira</b>	<b>86.735</b>	<b>123.718</b>	<b>88.851,24</b>	<b>-34.866,76</b> %-28,18

Ibarrean barna dauden edukiontzi txurietan eta urdinenetan utzitako ehunen kopuruak gora egin du eta Emausko trapuketariak jasotakoak, berriz, nabarmen behera. Sakandarreko 4,37 kilo ehun birziklatu ziren.

Tresna elektriko eta elektronikoak	2013	2014	2015	Aldea
Garbigunea	27.280	29.952	28.645	-1.307 %-4,36
Emaus	33.767	34.581	33.270	-1.311 %-3,79
<b>Guztira</b>	<b>61.047</b>	<b>64.533</b>	<b>61.915</b>	<b>-2.618</b> %-4,06

Bai garbigunean utzitakoa bai Emauskoei emandakoa urte batean %4,06 jaitsi da. Sakandar bakoitzak tresna elektriko eta elektronikoaren 3,04 kilo birziklatu zuen joan den urtean.

Altzariak, tamaina handikoak	2013	2014	2015	Aldea
Emaus	138.093	126.574	195.400	68.826 %54,37

Mank-ek Emausko trapuketariekin hitzartua duen zerbitzu horretan %54,37 gehiago jaso zen 2015ean. Sakandarrekiko 9,6 kilo izan ziren.

Botikak	Bilketa sistemak	Jasotakoa	%
Altsasu		626,76	38,58
Irurtzun		184,08	11,33
Atez atekoa		648	39,88
Mistoan		165,84	10,21

Botiketean dauden Sigre edukiontzietan 1.624,68 kilo sendagai jaso ziren joan den urtean, sakandarreko 0,08.



## Sakanako birziklatze tasa

# %49,52ko birziklapen tasa

**9 tona hondakin sortu ziren ibarrean 2015ean, haietatik gaika 4,67 tona jaso ziren**

Sakanan 2015ean 2014an baino 408.681,32 kilo hondakin gehiago jaso ziren, %4,71 gehiago. Aurreko urtearekin alderatuta birziklatze tasa %0,67 igo zen,

%51,46an geldituz. Europako Batasunak 2020rako %50 birziklatzeko eskatzen du. Gaur egun 2030erako helburuak zehazten ari da.

Mank-ek joan den urtean jasozuen hondakin zatirik handiena, %91,81, herrietan jaso zuen

(8.326.404,52) eta gainontzeko %8,18 industrialdeetan (708.597,81). Herriko hondakinaren gaikako bilketa tasa %51,99ekoa izan zen, industrialdeetako, berriz, %47,78ekoa. Sakandar bakoitzak 446,58 kilo hondakin sortu zituen 2015ean.

Sakanako etxe guztien %43,46ren hondakinak edukiontzien bidez jasotzen dira. Auzo konpostaren bidez hondakinaren %24,6 kudeatzen da. Autokonpostaren bidez, berriz, %17,19. Atez atekoarekin, azkenik, %14,72.

Bestelakoak	
Hondakinak	Kiloak
Abeltzaintzako siloen plastikoa	30.440
Industrialdeetan jasotako filmak	41.260
Arriskutsuak garbigunean	11.725
Obra txiki-txiki hondakina	21.300
Utzitako ibilgailuak	13.594

Birziklatze tasa				
	2012	2013	2014	2015
Errefusa	6.739.840	5.290.602	4.267.207	4.401.365
Gaika bilketa tasa	2.108.432	3.138.351	4.392.874	4.667.397
<b>Guztira</b>	<b>8.848.272</b>	<b>8.428.953</b>	<b>8.660.081</b>	<b>9.068.762</b>
<b>Birziklatze tasa</b>	<b>%23,83</b>	<b>%37,23</b>	<b>%50,79</b>	<b>%51,46</b>

Inpropioak		
	Jasotakoa	%
Organikoan	8.179,4	4,64
Ontzi arinak	115.376,85	65,43
Botiketean	365,55	0,21
Emaus	51.104	28,98
Humana	1.300	0,74

Sakandarrek 176.326,2 kilo hondakin behar bezala ez genituen birziklatu joan den urtean, jasotako guztiaren %1,94. Sakandar bakoitzak 8,68 kilo inpropio sortu zituen.

Errefusa						
	2012	2013	2014	2015	Aldea	2014-2015
Sakana	6.739.840	5.290.602	4.267.207	4.401.365	+134.158	%3,14

Bilketa sistemak		
	Jasotakoa	%
Altsasu	2.525.895	57,39
Irurtzun	639.310	14,53
Atez atekoan	874.560	19,87
Mistoan	299.140	6,8
Ontzi arinei kendutakoa	33.760	0,77
Hondakindegira eramana	28.700	0,65

Joan den urtean aurrekoan baino %3,14 errefusa gehiago jaso zen Sakanan. Ibarreko errefusaren zati handiena bilketa sistema bereziturik ez duten bi herriek, Irurtzunen eta Altsasuk, sortzen dute. Sakandarrek 216,74 kilo errefusa sortu zituzten joan den urtean.

Ontzi arinak						
	2012	2013	2014	2015	2014-2015 aldea	
Bildutakoa	330.160	414.710	529.160	558.390	29.230	%5,52
Kendutakoa*	15.000	23.000	35.000	68.100	33.065	%94,47
Birziklatu**	311.120	386.620	479.525	491.486,18	11.961	%2,49

\*Arbizuko hondakindegian ontziak ez diren eta kendu diren hondakinak.  
\*\*Azkoienara birziklatzera bidalitakoa.

Bilketa sistemak		
	Jasotakoa	%
Altsasu	149.150	30,35
Irurtzun	57.100	11,62
Atez atekoa	256.180	52,12
Mistoan	65.400	13,31
Industrialdeak	27.948,93	5,69

Ontzi arinen birziklatzeak %2,49 egin zuen gora joan den urtean ere. Sakandar bakoitzak 24,14 kilo ontzi arin birziklatu zituen 2015ean, 2014an baino 0,84 kilo gehiago.

Gaikako bilketa tasa sistemak	
	%
Altsasu	27,61
Irurtzun	35,33
Atez atekoa	78,7
Mistoan	64,51

Berrerabilia		
	Jasotakoa	%
Emaus ehunak	3.065	5,06
Emaus altzariak	13.951	23,02
Emaus bestelakoak	5.172	8,54
Humana ehunak	38.403	63,38

Sakanan jasotako hondakin guzti-tatik 60.591,8 kilo berrerabili ziren 2015ean.



Organikoa		
	Jasotakoa	%
Konposta Altsasun	54.367,83	2,71
Konposta Irurtzunen*	49.774,69	2,48
Konposta mistoan	306.502,59	15,25
Konposta atez atekoa	963.046,11	47,93
Mendigorriara eramana	373.469	18,59

Sakandarrek sortutako 2.009.221,22 kilo materia organiko kudeatu zituen Mank-ek 2015ean, aurreko urtean (1.499.192 kg) baino 510.029,22 kg gehiago (%34 gora). Sakandar bakoitzak 98,94 kilo materia organiko sortu zituen.

Familien organikoaren kudeaketa erak						
Herriak	Edukiontzia	Atez ate	Autokonposta	Auzokonposta	Etxaldea	Orokorra
Altsasu	3598	0	166	0	0	3764
Arakil	0	0	325	198	2	525
Arbizu	0	156	163	162	0	481
Arruazu	0	0	31	33	0	64
Bakaiku	0	60	99	31	0	190
Ergoiena	0	0	55	208	0	263
Etxarri A.	0	385	241	647	0	1273
Irañeta	0	0	67	29	0	96
Irurtzun	913	0	51	103	0	1067
Iturmendi	0	38	65	90	0	193
Lakuntza	0	288	170	206	0	664
Olatzagutia	0	277	119	437	0	833
Uhartea A.	0	175	104	147	0	426
Urdiain	0	158	103	85	0	346
Ziordia	0	0	27	197	0	224
<b>Guztira</b>	<b>4511</b>	<b>1537</b>	<b>1786</b>	<b>2573</b>	<b>2</b>	<b>10409</b>
	<b>%43,34</b>	<b>%14,77</b>	<b>%17,16</b>	<b>%24,72</b>	<b>%0,02</b>	<b>%100,00</b>







GRUPO TANATORIO

# IRACHE

TANATORIO TALDEA

# 948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

[www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)



## Martin Berastegui Navarro

Agur aitona.

**Miren, Aitor, Aroia, Oier**

Lizarraga-Ergoiena.



## Juan Miguel Arregi Razkin

I. urteurrena

Zure barre handia  
gure alaitasunaren argia.

**Itzekuek**

Apirilaren 3an meza Lakuntzako elizan.



# guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Guaixe astekarrian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€.

Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com-en](http://guaixe.iragarkilaburrak.com-en).

**HARREMANETARAKO**

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: [zorian@guaixe.eus](mailto:zorian@guaixe.eus)

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

SALGA

**Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzan.** 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuek deitu 676 92 71 65 telefonora.

**Pisua salgai Etxarri Aranatzan.** 84 m<sup>2</sup> erabilgarriak, berrituta, eguzkitsua, 3 logela, komun 1, egongela, sukalde, trasteleku bat pisuan bertan, berogailua. 72.000 € negoziagarriak. Hots egin 654 23 41 02 telefonora.

### Opatutakoak/Galdutakoak

#### OPATUTAKOAK

**Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

### Ikastaroak

**Udako Euskal Unibertsitateak (UEU).** Bere udaberriko eskaintza aurkeztu du. Otsaila eta maiatza bitartean 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatu ditu Nafarroan, [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus)

**Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak betetzeko.** Ekintzaileei eta bere kontu lanean ari direnei, bereziki izapideak on-line egin nahi dutenei zuzenduta. Apirilak 25, 10:00-14:00. Cederna Garalur/Utzugane, Arbizu. Izen ematea 948 56 10 10 edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Haziendako izapideak on-line bidez nola egin.** Ekintzaileei eta bere kontu lanean ari direnei, bereziki izapideak on-line egin nahi dutenei zuzenduta. Maiatzak 2, 10:00-14:00. Cederna Garalur/Utzugane, Arbizu. Izen ematea 948 56 10 10 edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

### Oharrak

**Larrazpi eguneko bazkaria.** Apirilaren 9an ospatuko da Irurtzongo Larrazpi Gazte Elkartearen eguna. 14:00etan eginen den bazkaria joan nahi duenak Pikuxarren, Viejon edo

Larrazpin eman dezake izena apirilaren 6ra arte.

**Irurtzongo irakurle taldea.** Apirilak 7, "El impostor" - Javier Cercas, 18:00etan liburutegian.

**Etxarriko irakurle taldea.** Toti Martinez de Lezea "Enda" liburua hizketatuko dira apirilaren 28an, ostegunean, 19:00etan liburutegian.

**Cava festa Lakuntzan.** Maiatzaren 20an, 21ean eta 22an izanen da. Txingurriyek bazkariak eta afariak emanen ditu. Lagundu nahi duenak [kultura@lakuntza.eus](mailto:kultura@lakuntza.eus) helbidera idatzi dezala.

**Nicoleren aldeko diru-bilketa.** Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365 2301 0002 9770.

**Benigno omentzeko auzolana.** Apirilaren egun osoko omenaldia egingen da Urdiainen. Proiekturako den ikusentzunezko egiteko argazkiak behar dira. Baita egunean bertan lan egiteko. Harremanetarako: [benignolagunak@gmail.com](mailto:benignolagunak@gmail.com)

**Berria Beka.** Berria Hedabideen Fundazioak, Berria Taldearen eta Laboral Kutxaren laguntzaz, Berria bekaren hirugarren aldirako deialdia egin du, euskara, hedabideak eta teknologia berriak kontuan hartuta proiektu berriak sortu eta martxan jartzeko. Proiektuak 2016ko apirilaren 1erako aurkeztu beharko dira eta proiektu irabazleak 12.000 euroko laguntza jasoko du proiektu martxan jartzeko.

**GoiEner Iruñean.** Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behe, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazketan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren zuzendaria. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzten eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe->

ezin

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza) [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943- 32 22 94.

**3MBk kontu korrontea zabaldu du.** Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregui klinikarako.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com) eta [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure beleixeguaixe txartela.** 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus).

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkarrekin denda.** Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arropa, pasta, gailetak, txokolak

tea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezta, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

**Herialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idatzeko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazketan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

**Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan.** Sakanako Mankomunitateko Immigratio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [immigratioa@sakanamank.com](mailto:immigratioa@sakanamank.com) posta elektronikoa.

**Gazteendako sexualitate aholkularitza.** Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intoxiapiunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo [gazteria@altsasu.net](mailto:gazteria@altsasu.net) helbidea). Adina: 12-30 urte.

**Izan zaitez Mintzakide!** Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, [sakana\\_mintza@aek.org](mailto:sakana_mintza@aek.org) e-posta edo [sakanamintza.blogspot.com](http://sakanamintza.blogspot.com) ataria.

**Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu.** Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: [www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com) web gunean.

**Iparaldeko Ikastolak laguntzeko.** Bi kontu

### JAIOTZAK

- Gorka Zunzarren Villafranca, martxoaren 16an Irurtzunen.
- Sahats Mundiñano Zabala, martxoaren 17an Etxarri Aranatzan.
- Alaitz Gomez Gorriti, martxoaren 19an Uharte Arakilen.

### HERIOTZAK

- Juan Antonio Rueda Perez, martxoaren 13an Altsasun.
- Agustin Adrian Navarro, martxoaren 16an Lizarragan.
- Martin Berastegi Navarro, martxoaren 19an Lizarragan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

**Garraio laguntzarako diru bilketa.** Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

**Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa.** Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo [berdintasuna@altsasu.net](mailto:berdintasuna@altsasu.net)).

**Ezgaizten Elkarteak bazkideak eta laguntzaileak behar ditu.** Sakanako Ezgaizten Elkarteak bazkide kanpaina martxan jarri du. Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin behar da. Bestalde, Sakanako ezgaizteak aisia behar dute. Laguntzaile izan nahi baduzu deitu 649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako Ezgaizten Elkartetik.



BOTXA

**IRURTZUNGO GAZTEAK 3. POSTUA LORTZERA:** Nafarroako Botxa Txapelketako finalak jokatu dira apirilaren 3an Berri-

zarren. Finalerdietan Irurtzungo Gazteek 20 eta 14 galdu zuten Amaieren kontra. Hortaz, 3. postua lortzea da euren erronka.

# kirola >>

## Cross country

### Beraza eta Mugica bikain Asturiasen

Berazak junior mailako proba irabazi zuen eta Unai Mugica bigarrena izan zen senior B4T mailan

Asteburuan Espainiako Cross Country Txapelketak bigarren lasterketa jokatu zen San Martin de Vallesen. Pilotu sakandarrak pozik itzuli dira bertatik, podiuma zapatu baitute. Marcos Beraza junior open mailan lehiatu zen eta irintarrak proba irabazi zuen. Gainera, scrach modalitatean, azkarrenaren sailkapenean, hirugarrena sailkatu zen Irañetako. Bestalde, senior B 4T mailako proba Alberto Itoiz nafarrak irabazi zuen. Unai Mugica altsasuarra bigarrena sailkatu zen.

## Pilota

### II. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketa aurrera Altsasun

Altsasuko Gazte Asanbladak eta Pilotajauku klubak antolatutako II. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketa martxan dago. Astero jokatu dira partidak, Burunda pilotalekuan.

## Aste honetako lehiak

### Ostegunean, 18:30ean:

3.maila. Donlo-Cid / Reparaz-Mertxan

3.maila. Araña-Lazkoz / Bengoetxea-Unamuno

1.maila. Arbizu-Arbizu / Martinez-Flores

### Ostiralean, 20:00etan:

3.maila: Santamaria-Larrion / Pobeda-Claver

3.maila: Bengoetxea-Berastegi / Aramendia-Calleiras

2.maila: Zubiria-Etxeberria / Joao-Ansotegi

1.maila: Zelaia-Grados / Lopez de Zubiria-Garziandia

## XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketa abian

Bihar, Ostegun Santuan, abiatuko da XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketa. Puntako afizionatuak lehiatuko dira asteburu, eta finalak Irurtzungo Trinitateko festetan erabakiko dira.

## 1.jardunaldia

Sanz-Diaz (San Migel) / Senosiain-Labaka (Lagunak)

Barbajero-Telletxea (Paz Ziganda) / Otxandorena-Etxamendi (Buruzgain)

Mazkiaran-Mina (Huarte) / Maiz-Esnaola (Bear Zana)

## Herri kirolak

**Nafar Kirol Jokoetan igandean Berriozarren jokatuak 5 finaletatik 4 irabazi ditu Etxarri Aranazko ikastolak**

Igandean Nafar Kirol Jokoen final handiak jokatu ziren Berriozarren. 5 final zeuden jokoan, 3 proba konbinatuetan –kimuen, haurren eta kadeteen mailan– eta 2 sokatiran, haurren mailan eta kadeteen mailan. Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolako taldeek sekulako erakustaldia eman zuten eta jokoan zeuden 5 finaletatik 4 irabazi zituzten. Hiru proba konbinatuetan txapelkunak izan ziren eta kadeteen mailako sokatira txapelketan irabazi zuten. Haur mailako sokatiran, aldiz, Basaburua gailendu zen Andra Mariren aurretik.

Aurtengo Nafar Kirol Jokoak inoiz baino arrakastatsuekoak izan dira. Txapelketan 9 klubetatik sortutako 30 talde lehiatu dira, tartean Etxarriko Andra Mari eta Altsasuko Iñigo Aritza ikastolatik sortutakoak. Zehazki, Iñigo Aritzatik sortutako Iñigo Aritza, Aizkorri eta Urbasa eta Andra Mari ikastolatik sortutako Andra Mari, Ondatz, Beriain, Andia, Leziza eta Utzubar taldeak.



Nafar Kirol Jokoetan aritu diren Andra Mari ikastolako neska-mutikoak eta monitoreak, talde argazkian. UTZITAKOA

## Andra Mari txapelkun

### Emaitzak

Berriozarren jokatuak finaletan, proba konbinatuetan, kimuen mailan, Andra Mari izan zen txapelkuna (6:32), Berriozar B-ri 5 segundo aterata. Araxes izan zen hirugarrena (6:48) eta Igantzi B laugarrena (6:57). Haur mailako proba konbinatuan Andra Mari amaitu zituen lanak azkarren (8:20). Basaburua izan zen bigarrena (833),

Arartziri hirugarrena (9:02) eta Iñigo Aritza laugarrena (9:14). Eta kadete mailako proba konbinatuan Andra Mari gailendu zen (9:13), Araxes (9:22), Basaburua (9:48) eta Iñigo Aritza (10:27) taldeen aurretik.

Sokatiran, haurren mailan Basaburua izan zen txapelkuna, Andra Mari txapelkunaordea, Leziza hirugarrena eta Iñigo Aritza lau-

garrena. Txapelketa oso estua izan zen, izan ere lehen postua erabakitzeke Basaburuak eta Andra Mari berdinketa hausteko tiraldia egin behar izan zuten. Berdina gertatu zen hirugarren postua erabakitzeke.

Kadete mailako sokatiran, aldiz, Andra Mari izan zen txapelkuna, Basaburua, Araxes eta Ultzama taldeen aurretik.

## Mendia

# Hiru mendi zerrak lotzera

**Apirilaren 2an, larunbatean, 7:00etan Altsasuko Gure Etxetik abiatuko da mendi ibilaldia. Bi ibilbide egiteko aukera dago eta izena ematea zabalik dago**

Altsasuko Mendigoizaleak, Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin eta hainbat entitateen babesarekin, 9. Hiru Mendi Zerrak mendi ibilbidea antolatu du apirilaren 2rako. Ibilbide luzeko ibilaldi ez lehiakorra da eta Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien IX. Txapelketa mustuko du. Horretaz gain, Euskal Herriko Mendi Ibilbide Luzeen Zirkuituan sartua dago.

Altsasuko Mendigoizaleak taldeko presidente Javier Zelaiak eta Dantzaleku Sakana klubeko mendiko sekzioko arduradun Julian Otaegik aurkeztu zuten ibilaldia. Zelaiak adierazi zuenez "mendian basolanak egiten ari direnez, makinak eta beste dabilzan guneetatik ez gara pasako, baina, bestela, ibilbidea betikoa izango da".

### Bi aukera: 48 km eta 26 km

Mendizaleek bi ibilbideren artean hautatzeko aukera izanen dute: ibilbide handia, 48 km-koa eta 2.700 metrotako desnibel metatua duena; eta ibilbide txikia, 26 kilometrokoa eta 1.200 metrotako desnibelekoa.

Bi ibilbideak Altsasuko Gure Etxetik abiatuko dira, 7:00etan. Mendizale guztiak Urdiainera joko dute. Urdiaindik Urbasa-Andiara

## Markatzea errespetatzeko deia



Julian Otaegik azaldu zuenez, Dantzaleku-Sakanak egingo ditu proba ez lehiakorreko markatze lan guztiak. "Zenbait ediziotan arazoak izan ditugu. Ibilbidea markatzeko jarritako markak, hori koloreko plastikozko zinta pusketak, kendu izan dizkigute. Eta behin, gainera, ibilbidea pasatzen ez zen eremuetan jarri zituzten. Horrek sekulako nahasmena sor dezake. Berezi Ziardia eta Kipular tartean gertatu izan zaigu hori. Mesedez, jendeak ibilbidea jarraitzeko jartzen ditugun markak errespetatu ditzala" eskatu zuten Zelaiak eta Otaegik.

igoko dira, Portuazpitik, eta aipatu parkenaturalazeharkatuko dute, Bargagaingogurutzerahelduz. Portutik barna, Gainsolera helduta, bertatik Ziordiaraino jaitsiko dira. Ibilbide motza aukeratzen dutenak partzelarietatik barna Altsasura ailegatuko dira, eta, aldiz, ibilbide luzea hautatzen dutenak Kipular igoko dute, gero Orobeko antzinarako harrobitik jaisteko. Ondoren, Sorozarretajaitsi eta segidan Balankaleku eta Intxusburu igoko dituzte. Handik jaitsiko dira, Sarabetik, eta San Pedrotik eta Basoixitik barna Altsasura helduko dira.

Hiru Mendi Zerrak proban parte hartzeko deia egin diete sakan-darrei. "Espero dezagun eguraldiak laguntzea eta gure mendi ederran bikain pasatzea". 2015ean 400 mendizalek osatu zuten ibilbidea.

## Izena ematea

Aurretik, [www.mendizmendi.com](http://www.mendizmendi.com) edo [www.zirkuitua.com](http://www.zirkuitua.com) web guneetan, martxoaren 28ra arte (13 euro). Epe horretatik aurrera ezingo da izena eman.

## 37. Sakanako Ibilaldi Handian izena ematea zabalik

Irurtzungo Iratxo elkarteak antolatuta, apirilaren 30ean izanen da 37. Sakanako Ibilaldi Handia. Aurten hiru ibilbide egiteko aukera izango da: Sakanako Ibilaldi Handia, ohikoa (6:00etan, 54 km), Ibilbide Motza (7:30etan, 27,6 km), eta berrikuntza moduan Ibilaldi Txikia (9:30etan, 14 km), mendizaletasuna sustatzeko haur eta gurasoendako martxa. Izena ematea zabalik dago [www.ira-txoelkarte.com](http://www.ira-txoelkarte.com) web gunean.

## IKUS BIDEOA

Iratxok prestatu duen bideoa ikusteko, sartu Youtuben eta XXVII Sakanako ibilaldia idatzi.

## Tontorrera euskal presoan alde

### Apirilaren 3an, 9:30ean, nafarrak Arbizutik, Beriain igotzeko

"Pausoz pauso euskal preso eta iheslariak etxeratu arte, goazen denok tontorrera!" lelopean mendi irteerak antolatu dira apirilaren 3an, igandean. Lau adar aterakodira. Gipuzkoarrak Larraitetik abiatuko dira Txindokira, bizkaitarrak Urkiolatik, Anbotorantz, arabarrak Muruatik, Gorbearantz, eta nafarrak Arbizutik, Beriainerantz. Goizeko 9:30ean abiatuko dira lau adarrak.



Duatloia

# Larralde eta Gamba euripean nagusi

**Sakandarrak 20. Arbizuko Duatloian**

1.	Ioseba Larralde	1:47:34
11.	Sergio Garcia de Eulate	1:55:44
20.	Mikel Astiz	1:57:57
30.	Fco. Javier Gomez	1:59:45
49.	Urko Berdud	2:03:19
56.	Aitor Mozo	2:04:45
66.	Alejandro Zabala	2:06:49
72.	Juan Luis Maiza	2:08:28
94.	Juan Carlos Gomez	2:13:45
103.	Ivan Sobredo	2:15:55
106.	Jorge Iradi	2:16:41
110.	Mikel Lakuntza	2:18:04
115.	Borja Gonzalez	2:19:45

**ERRELEBOAK**

1.	Gorka Garcia de Eulate eta Tomas Guirado
2.	Iker Estarriaga eta Asier Estarriaga
3.	Iñaki Gallego Rosado eta Gaizka Martinez de Albeniz

**NAFAR KIROL JOLASAK**

**Kadeteak**

4.	Mikel Arretxe	1:03:29
----	---------------	---------

**Juniorrak**

1.	Iñigo Maiza	59:55
----	-------------	-------

**Hotza eta euria izan ziren 20. Arbizuko Duatloiko protagonistak. 216 duatletek parte hartu zuten eta 145ek lortu zuten helmugara iristea**

Etxean geratzeko modukoa. Horrelakoa zen larunbat arratsaldeko eguraldia. Baina 20. Arbizuko Duatloian izena eman zuten duatletek ez ziren kikildu -228 zeuden izena emanda eta 216 azaldu ziren helmugara- eta euripean gogoz ekin zioten Arbizuko Udalak hainbat babeslerekin antolatutako proba beteranoari.

8 km korrikan, 32 km bizikletan eta 4 km korrikan egin behar izan zituzten. Proba osoan barna euria, haizea eta hotza izan ziren nagusi eta 71 duatletek proba utzi behar izan zuten. Hori izan zen Ana Casares faboritoaren kasua. Berehala utzi zuten proba.



Hotza, euria eta lainoa izan zituzten aurkari duatletek larunbatean Arbizun.

Kadeteek eta proba herrikoian izena eman zutenek distantzia erdia osatu zuten. Bestalde, 3 bikotek proba errelebotan osatu zuten -bategen txirringarritza segmentua eta besteak korrikakoa-. Nolanahi ere, guztiek sufrikario latza pasa behar izan zuten, bizikleta segmentuan bereziki, Lizarragako portuan haize latzak jotzen zuten. Izoztuta iritsi ziren duatletek boxetara, eta asko bizikleta utzi eta zapatilak ezin jantzi ibili ziren, muskuluak zurrunduta iritsi baitziren. Trantsizioak inoiz baino luzeagoak izan ziren.

Hala ere, Saltoki Trikideak taldeko Joseba Larralde irabazlea itxura bikainarekin iritsi zen helmugara (1:47:34). "Korrikan erritimo politarekin aterata gara eta bizi-

kletako tartea oso gogorra egin da, hotzarengatik, haize asko zegoelakogoa. Azkeneko korrikasaira lan nahikorekin iritsi gara, muskularki nahiko justu. Hotza barruraino sartua geneukan" adierazi zuen Larralde helmugan. Aurten hasi da duatloian eta Arbizuko bigarren proba zuten. "Bizikletan ongi ibiltzen naiz, Arbizun, gainera, ezin da ondokoa gurrupilera lotuta joan eta hori niretzat ona da. Gehienbat ongi pasatzen eta lehiatzen nentorren. Sufritzea gustatzen zaigu, horretarako egiten dugu kirola eta gustura geratu naiz, eta garaipenarekin zer esanik ez" adierazi zuen 30 urteko gazteak. Peru Alfar izan zen bigarrena (1:48:04) eta Txomin Osoro (1:49:30) hirugarre-

**NKJ: Iker Mintegi eta Ekain Imaz txapeldun**

Goizean IV. Arbizuko Haur Duatloia jokatu zen. 100 duatleta inguru aritu ziren. Sakana Triatloi Taldekoak primeran ibili ziren. Aurrebenjaminetan Luca Martinez 2.a sailkatu zen eta Jon Ducar 5.a Benjaminetan Ekain Imaz izan zen txapelduna, Alain Razkin 5.a, Atikilt Arretxe 10.a, Unax Gantzarain 16.a eta Aitor Aldunate 19.a. Kimuetan, nesketan, Nahia Imaz 5.a sailkatu zen eta mutiletan Hegoi Lakuntza 2.a iritsi zen helmugara eta Adrian Martinez 5.a. Bukatzeko, Iker Mintegi izan zen haurren mailako txapelduna eta Eneko Arretxe 12.a.

na. Emakumezkoetan Nerea Gamba nagusitu zitzaizen, alde handiarekin, Nerea Arregiri eta Helena Alberdiri. "Banekien proba gogorra zela eta horri eguraldi txarra gaineratu zaio. Baina ni gustura geratu naiz" adierazi zuen 34 urteko txapeldunak helmugan.

Sakandarrei dagokienez, Sergio Garcia de Eulate altsasuarra izan zen azkarrena, helmugan 11.a (1:55:44). Kadeteetan Sakana Triatloi Taldeko Mikel Arretxe 4.a sailkatu zen (1:03:29) eta juniorretan Saltokiko Iñigo Maiza lehena izan zen, Nafar Kirol Txapelketetarako baliagarria zen distantzia erdia osatu eta gero (59:55). Erreleboetan Gorka Garcia de Eulate eta Tomas Guirado gailendu ziren. Bukaeran auzatea eta sari ematea izan ziren.

Futbola

**PREFERENTE MAILA. 1. multzoa**

25. JARDUNALDIA

**SAN JORGE 1 - ETXARRI ARANATZ 4**  
**LAGUN ARTEA 1 - URROZTARRA 1**  
 Iruñean, San Jorgeri 1 eta 4 irabazi zion Etxarririk. Hasieran bi taldeak parez pare ibili ziren, baina Xabatek Etxarri aurreratu zuen eta atsedendirako beste gol bat sartu zuen Unai. Bigarren zatian Etxarri ongi defendatu zuen eta Xabatek eta Xabik gol bana sartu zuten. Horrela, garaipen ederrarekin itzuli ziren etxarriarrak. Aldiz, Lakuntzan, puntu banaketarekin despiditu zen Lagun Artearen eta Urrozterraren arteko lehia. Partida lehiatua, Urrozterra aurreratu zuen. Urrozterraren gol bat baliogatu zuen arbitroak. Lagun Arteak egoerari buelta eman zion eta Mikelek berdintzea lortu zuen. Bi taldeek aukera gehiago izan zituzten, baina markagailua ez zen mugitu.

Saillkapena >>

1.	Gares	51 p
4.	Etxarri Aranatz	43 p
6.	Lagun Artea	38 p

Hurrengo jardunaldia

**ETXARRI ARANATZ - LAGUN ARTEA**  
 (Apirilaren lehen asteburuan, Etxarrin)

**ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa**

25. JARDUNALDIA

**VALLE DE EGÜES 3 - ALTSASU 0**  
 Bi taldeek ongi jokatu zuten, baina Egüesek bere aukera ia bakana aprobetxatzen jakin zuten eta 15. minutuan aurreratu egin zen. Bigarren zatian Altsasuk asko arriskatu zuten baina baloia ez zen sartzen eta Egüesek, aldiz, beste bi gol sartu zituen.

Saillkapena >>

1.	Doneztebe	62 p
9.	Altsasu	28 p

Hurrengo jardunaldia

**ALTSASU - AMIGO**  
 (Apirilaren lehen asteburuan, Dantzalekun)

**ELOMENDIKO TXAPELKETA**

2. FASEKO A MULTZO. 13. JARDUNALDIA

**EGIARRETA 3 - BAR POUKAS 3**  
**ZALDUA 4 - RINCON IR 1**

Saillkapena >>

1.	Bar Mikel	28 p
3.	Egiarreta	18 p
4.	Zaldua	16 p

Asteburuko jardunaldia

Asteburuan atzeratutako partidak jokatu dira eta hurrengo jardunaldia apirilaren lehen asteburuan izanen da.

Mendi lasterketa

# Korrikalari sakandarrak galtzak bete lan

**Beñat Katarain 3.a izan zen Arriaranen, Jose Luis Beraza 4.a Jurramendin, Joxeja Maiza 12.a Donostia-Hondarribian eta Adur Senar bigarrena Etxaurin**

Asteburuan makina bat lasterketa izan dira, eta korrikalari sakandarrak primerako lana egin dute, gainera. Larunbatean Beasainen jokaturako V. Arriarango mendi lasterketan (15,3 km) Koldo Agirre (1:11:05) eta Maria Zorroza (1:21:16) izan ziren txapeldunak, 153 korrikalarien artean. Beñat Katarain lakuntzarrak hirugarrena sartu zen (1:11:35). Bestalde, larunbatean jokaturako VI. Donostia-Hondarribia Talaia Bidea Mendi Lasterketan (30 km) Iker Oliveri izan zen azkarrena (2:14:00), helmugara iritsi ziren 516 korrikalarien artean. Joxeja Maiza etxarriarra bikain aritu zen eta 12.a sartu zen (2:33:07).

Igandean 253 korrikalarik osatu zuten II. Jurramendi Traila, Aiegina (22 km). Louchin Nassiri (1:54:15) eta Virginia Perez (2:17:41) izan ziren txapeldunak. Top 10ean hiru sakandar sailkatu ziren: Jose Luis

**Sakandarrak V. Arriarango mendi lasterketan (15,3 km)**

1.	Koldo Agirre	1:11:05
3.	Beñat Katarain	1:11:35
16.	Mikel Rubio	1:18:39
29.	Alberto Razkin	1:22:02
36.	Fran Araña	1:23:51
51.	Iban Verdugo	1:27:19
55.	Mikel Perez de Eulate	1:27:57
96.	Ibai Arrese	1:39:09
103.	Maria Goikoetxea	1:39:51

**Sakandarrak VI. Donostia-Hondarribia Talaia Bidea Mendi Lasterketan (30 km)**


1.	Iker Oliveri	2:14:00
12.	Joxeja Maiza	2:33:07
123.	Andoni Azanza	2:59:44
242.	Aitor Salinas	3:16:47

**Sakandarrak II. Jurramendi Trailan**

1.	Louchin Nassiri	1:54:15
4.	Jose Luis Beraza	1:58:58
8.	Evaristo Noveleta	1:59:56
10.	Aritz Munarriz	2:01:54
29.	Julen Lizarraga	2:12:59
41.	Juanjo Armendariz	2:16:00
46.	Alberto Goñi	2:17:49
98.	Gorka Arratibel	2:32:01
168.	Sergio Goñi	2:50:05
208.	Mikel San Martin	3:01:43
220.	Erkuden San Martin	3:07:24

\*Oharra: Gerta daiteke bateanbat ez agertzea

Beraza 4.a izan zen (1:58:58), Evaristo Noveleta 8.a (1:59:56) eta Aritz



Beñat Katarain lakuntzarrak hirugarrena izan zen Arriaranen.

Munarriz 10.a (2:01:54). Bukatzeko, igandean 37. Etxauriko Krosa jokatu zen (7 km). Larreaundira igotzea zen erronka. 110 korrikalari animatu ziren proba osatzera eta Mikel Beunza izan zen garailea (29:14), Adur Senar lakuntzarrari minutu bat eta 6 segundo aterata (30:20). Emakumezkoetan Izaskun Sanz gailendu zen (35:1).

**Lekunberriko Legoa**  
 Igandean Lekunberriko legoa (6.040 m) atletismo proba jokatu zen. 47 korrikalarien artean Jorge Manuel Perez (19:13) eta Lourdes Colomo (24:03) izan ziren txapeldunak. Alatz Agirre arbizuarra 9.a sailkatu zen (22:25) eta Santi Agirre iturmendiarra 32.a (25:41).

Areto futbola

**Jumillaren eta Magna Gurpearen artean puntu banaketa**

Ostiralean Jumillaren kontra aritu zen Magna Gurpea Xota. Talde berdeak partidako jokaldi onenak izan zituzten eta baloiaren jabetza ere euren izan zen, baina punteria faltagatik partida puntu banaketarekin despiditu zen.

Jesulitok aurreratu zuen Magna Gurpea. Atsedena baino lehen beste bi jokaldi garbi huts egin zituen talde berdeak. Bigarren zatian Jumillagoak finago hasi ziren. Gol aukerak sortu zituzten eta 26. minutuan berdintzea lortu zuen Evertonek. Aukera gehiago izan zituzten bi taldeek. Baina markagailua ez zen gehiago mugitu.

**OSTIRALEAN BARTZELONA**

Saillkapen orokorrean Inter Movistar da liderra (65 puntu). Magna Gurpea bosgarrena da (44 puntu). Bihar, ostiralean, Magna Nafarroa Xotak saillkapenean bigarrena den Bartzelona hartuko du, Anaitasuna pabilioian. Zalantzarik gabe, ez galtzeko moduko partida.



## Pala



## Igoa eta Mendinueta txapeldun

Junior mailako Nafarroako Emakumeen Pala Txapelketako finalean Izar Parot eta Uxue Murillo taldekideei irabazi zieten

Asteartean jokatu zen, Iruñeko Labriten, Nafar Kirol Jolasetako junior mailako Nafarroako Emakumeen Pala Txapelketako finala. Etxarri Aranzako Gure Pilota taldeko palistak izan ziren protagonista. Final ederrean, Irati Igoa eta Uxue Mendinueta etxarriarrek 30 eta 20 irabazi zieten Izar Parot etxarriarri eta Uxue Murillo iruindarrari.

Bestalde, Nafar Kirol Jolasen Nafarroako Emakumeen Pala Txapelketako benjaminen mailako finalean, Mendillorriko Murillok eta Arbizuk 18 eta 9 hartu zituzten menpean Gure Pilotako Murugarren eta Erdozia. Eta haurren mailako finalean Esteribarreko Esain eta Ibarrolak 25 eta 23 irabazi zieten Gure Pilotako Bergerari eta Biaini.

## Txirrindularitza

## Erramu trofeoa Roger Adriarendako

Alex Burdoyekin esprint estua izan zuten Altsasun

Igandean jokatu zen Sociedad Deportiva Alsasuak antolatutako 57. Erramu Trofeoa, juniorren mailako proba. 127 korrikalarik hartu zuten irteera eta horietatik 47 iritsi ziren helmugara, probako 79 km-ak osatu eta gero. Altamira portua bitan eta Lizarragakoa batean igo



## Aramendia eta Etxeberria Zarautzen



Larunbatean 26. Zarautzarrak lasterketa jokatu zen (50 km), euripean. 124 txirrindularietatik 64 sailkatu ziren. Helmugako esprintean Zarautzarrak taldeko Haritz Erasun gailendu zen (1:17:31), Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberriaren aurretik. Intersport Irabiako Jon Gil 26.a sailkatu zen, Urko Gorriti 33.a, Ander Rosado 36.a eta Javier Mitxaus 64.a. Emakumezkoetan, CAF Transport Engineering taldeko Maialen Aramendia iturmendiarak irabazi zuen proba (1:19:34), lasterketan helmugara 24.a iritsita.



Goian, tropela Etxarriara heltzen. Behean, Adria helmugan. GUZMAN LOBO

behar izan zituzten.

Helmugan esprint estua izan zuten Huesca la magia taldeko Roger Adriak eta Trek Sabadell taldeko Alex Burdoyk. Adria nagusitu zen, oso gutxigatik (2:03:33). Bi segundora sartu zen Asesores

Navarra taldeko Joseba Otaola, 2 segundora. Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Asier Etxeberria 30.a sartu zen, 41 segundora, Hodei Zia 44.a, 2:24ra eta Alex Unzilla 46.a, 3.33ra. Probako talde onena Huesca la Magia izan zen.

## Euskal Herriko Itzulia Sakanatik pasako da

Apirilaren 6an, asteazkenean, Gasteiz-Lesaka etapak Sakana zeharkatuko du

Munduko txirrindularirik onenak Sakanatik pasako dira apirilaren 6an, asteazkenean. Egun horretan Euskal Herriko Itzuliko 3. etapa egonen da jokoan, Gasteizen hasi eta Lesakan despedituko dena (194,5 km). Gasteizen 12:05ean abiatuko da lasterketa eta lautada zeharkatu ondoren Andoindik sartuko da Ziordira, 13:00ak inguruan. Ondoren Sakana zeharkatuko du -Altsasu (13:06), Etxarri Aranatz (13:20), Lakuntza (13:30)... - eta Irurtzundik (13:55) Plazaolako Tunelera sartu (13:56) eta Lekunberri aldera egingo du. Ondoren, 5 mendikate igo beharko dituzte. Uitz (3), Usategi (2), Aritxulegi (2), Agiña (2) eta La Piedad (3) Lesakan despeditzeko.

## DATORRENA

Afizionatuek bihar, Ostegun Santuan, Durangon dute lasterketa, Euskaldun Torneorako baliagarria eta aldi berean Euskal Herriko Txapelketa dena (128 km, 9:15ean). Juniorrek igandean XLI. Sallurtegi Saria jokatuko dute Agurainen, Euskal Herriko Torneoko proba dena. Apirilaren lehen asteburuan kadeteak Tafallan ariko dira eta afizionatuak Amorebietan eta Eibarren.

## Aralar Txirrindulari Taldea 2016



**Aralar, 41 txirrindulari-ko familia.** Igandean egin zuen aurkezpena Aralarrek, Lakuntzan. Alfonso Tadeo da presidente berria eta Javier Etxarrik, Mariasun Erdoziak, Edurne Arkauzek, Eddy Cerviñok, Antonio Iregik eta Javier Huartek osatzen dute junta. Helburuak, betikoak, neska-mutikoak trebatzea eta txirrindularitzaren baloreak hedatzea. "Lagunak egin ditzatela, diziplina pixkat ikasi... finean, haurrek ongi pasa dezatela. Eta garaipenak etortzen badira, hobe" adierazi zuen Juanjo Erdozia entrenatzaileak. Aralarrek aurten ez du juniorren talderik izango, baina kontentu daude kide berri asko dituztelako. Babesle guztiak, Irabia Intersport buru dela, eskertu zituzten. Nafarroan eta Euskal Herrian ariko dira.

**ESKOLAK: Promesak (7):** Manex Huarte, Luca Martinez, Janitz Zufiaurre, Aratz Lizarraga, Ekai Erdozia, Unax Etxeberria eta Urko Oiarbide. **Hasiberriak 1 (2):** Ibai Arana eta Oiert Irujo. **Hasiberriak 2 (5):** Ioritz Arratibel, Alain Rosado, Bakarne Arregi, Eñaut Oiarbide eta Leire Urtaşun. Entrenatzaileak: Ion Arregi, Mikel Oiarbide eta Alfonso Tadeo (hasiberriak 2). **Kimuak 1 (4):** Xabier Iregi, Aritz Oiarbide, Manex Zufiaurre eta Achraf Sbai. **Kimuak 2 (3):** Aïmar Tadeo, Oihan Arana eta Mikel Iregi. Entrenatzaileak: Alberto Martinez, Juanjo Erdozia eta Alfonso Tadeo (kimuak 1). **Haurrak 1 (3):** Jon Erdozia, Ion Cerviño eta Martzel Etxeberria. **Haurrak 2 (6):** Aitor Alberdi, Igor Arrieta, Maria Beraza, Asier Irujo, Sergio Romero eta Mikel Martinez. Entrenatzaileak: Alberto Martinez, Juanjo Erdozia eta Alfonso Tadeo. **KADETEAK: Kadeteak 1 (3):** Joseba Huarte, Ion Gil eta Urko Gorriti. **Kadeteak 2 (8):** Beñat Etxezarreta, Javier Mitxaus, Imanol Galarza, Unai Lizarraga, Iker Cerviño, Ander Rosado, Xabier Mauleon eta Josu Etxeberria. Entrenatzaileak: Eddy Cerviño eta Juan Mari Gil.

## BABESLEAK



INTERSPORT  
IRABIA





## Granizorendako Azkue Saria

doia Granizo Uribarrena altsasuarrak Resurreccion Maria Azkue literatur sari-  
ketan saria jasozuen pasa den  
astartean. Granizoren *Hitzak  
hots* lana gazte mailako olerki o-  
na zela ebatzi zuen epaimahaiak.  
Bikote harremanak eta norbera-  
ren nortasuna hizpide dituen lana  
da berea. Granizok azaldu digu-  
nez, "mutil batekin harremana  
hasien duen neska baten istorioa  
da. Hasieran dena ongi doa, tratu  
txarrak hasten diren arte. Bere  
buruaz beste egiteko ideia sor-  
tzen zaio". Lehen pertsonan ida-  
tzitako istorioa garai hartan ira-  
kurtzen ari zen liburu batetik ate-  
ra zuen: "bere buruaz beste, hil  
nahizuen neska bati buruzkoa zen.  
Gaia hartu eta buelta eman nion".  
Neurri eta errimarik gabekoa da  
saritutako obra.

Euskaltzaindiak eta Bilbao Biz-  
kaia Kutxa Fundazioak antola-  
tzen dute Resurreccion Maria  
Azkue Literatur Saria. Ez da,  
ordea, Granizok lehiaketa batean



jasotzen duen aurreneko saria.  
Joan den urteko bere uzta hona-  
koa izan zen: garagarrilean Altsa-  
su institutuko narrazio lehiaketa;  
irailean, bertsoekin, Lazkao Txiki  
sariaketa eta abenduan, Honda-  
rribiko narrazio saria.

Altsasuarrak esan digunez, idaz-  
tengustura dabil, "beste mundu bat  
bezala da". Bertsolaria ere bada, eta  
hor sentitzen da "erosoen. Narra-

zioekin gustura nabil, poesiarekin  
ez hainbeste, baina saiatzen naiz".  
Sortze prozesuaz galdetuta, egunero  
zerbait idazten duela esan digu:  
"esaldiren bat, bukaera bat, erri-  
maren bat..." Horiek apuntatu eta  
lanen bat aurkezteko garaian ego-  
kienak iruditzen zaizkionak auke-  
ratzen ditu. Dagoeneko beste bi  
sariaketetan lanak aurkeztu ditue-  
la aurreratu digu.

## Bardo festa

Etzarri Aranazko Euskale-  
rriari frontoian 270 bertso-  
zale elkartu ziren larunba-  
tean. Bardoak, Nafarroako talde-  
kako bertso ekimeneko finalaz  
gozatu zuten guztiek. Iruñeko Oba-  
rio Maldikoak, Leitzako Ateka-  
berts eta Berako Larungo Antenak  
taldeak izan ziren oholtza gaine-  
an, 10 bertsolari guztira. Hiru tal-  
deak kantuan ez ezik aurkezle  
lanetan aritu behar izan zuten. Lau  
izan ziren langintza horretan ari-  
tu zirenak. Bertsolariak, batzue-  
tan, bertsoak trikitiaz, pandero-  
az, txirulaz eta gitarraz lagundu-  
ta eman zituzten.

Txapelketa guztian zehar beza-



la publikoa zen epailea. Haren  
artean Bardoetan parte hartu  
duten beste taldeetako kideak ere  
bazeuden. Bardoetako hirugarren  
edizioko talde lan onenaren saria  
Leitzako Atekabertsendako izan  
zen. Hau da, Ander Fuentes "Ittu-  
rri", Joanes Illarregi, Xabat Illa-  
rregi eta Migel Mari Eloseg  
"Luze". Bertsozale Elkarteko eta


Etxarriko udalaren ordezkarien  
eskutik hiru taldeek jaso dituzte  
sariak. Larraungo, Iruñeko, Liza-  
rrako, Pirinioetako eta Barañaingo  
taldeek sari bereziak jaso zituzten.  
Finalaren ondoren bertsozaleak  
Etxarri barna triki-poteoan ibi-  
li ziren. Bardoan afariak ordu txi-  
kietaraino luzatu zuen ospakizun-  
a.

## Musikarte

Asteartean mustu zuten  
Musikarte erakusketa Ior-  
tia kultur gunean. Iñigo  
Aritza ikastolako ikasleek Agus-  
tin Gonzalez Aziluren *Arrano bel-  
tza* musika-lana oinarri hartuta  
hainbat arte-lan egin dituzte eta  
horiexek dira erakusketan ikus-  
gai daudenak. Irekiera-ekitaldian  
haize-laukote batek 3 pieza jo  
zituen eta Helena Santano artista  
altsasuarrak zuzenean margotu



zuen mihisea *Arrano Beltza* entzu-  
ten zen bitartean. HH, LH3, LH5  
eta DBH3 ikasleek parte hartu  
dute egitasmoan. Iñigo Aritzak  
antolatzen duen 3. erakusketa da.



## Klik batean jaso: Altsasu, gazteak eta aisialdia

Argazki batean, edo batzue-  
tan, Altsasuko gazteek  
herriko gazteen aisialdia-  
ren inguruan duten ikuspuntua  
jasotzea. Hori da Altsasuko Uda-  
laren Gazteria Zerbitzuak antola-  
tutako argazki lehiaketaren xedea.  
12 eta 30 urte arteko gazteek par-  
te hartu dezakete, bakarka edo  
taldeka, bi mailetako batean: 12-  
17 urte 18-30 urte. Bakoitzean,  
saria 100 euroko argazki mate-  
rial edota ikus-entzunezko mate-  
rial izanen da. Argazkia egiteko  
edozein teknika erabil dezakete.

Lehiaketarako lanak, plika sis-  
tema erabiliz, apirilaren 10era



arte aurkeztu daitezke Intxostia-  
punta gazte gunean. Informazio  
gehiagoko: [gazteria@altsasu.net](mailto:gazteria@altsasu.net)  
edo [intxostiapunta@gmail.com](mailto:intxostiapunta@gmail.com).  
Sari banaketa apirilaren 16an egi-  
nen da, 18:00etan.

## bazterretik

### Izaskun Beunza



### Casa Rana / Made in Earth

2010. urtean Made in Earth (MiE)  
arkitekto talde italiarra Terre des  
Hommes Core Trust Indiako Gober-  
nuz Kanpoko Erakundearekin (GKE)  
elkarlanean hasi zen, Indiako Tamil  
Nadu eskualdeko bizilagun behar-  
tsuenentzat eraikin eta jarduera  
sarea sortzeko helburuarekin. Lan-  
kideza horretatik sortutako lehen-  
dabiziko proiektua "Casa Rana" erai-  
kina da, zeina umezurtzendako  
arreta bereziko programa baten  
parte ere baden. Egun etxebizitza  
GIB.a duten 15 haurrei aterpea  
emateaz gainera, hauen hezike-  
taz ere arduratzen da. Proiektua  
aurrera eramateko, egungo erai-  
kuntza materialak erabili dira  
eskualeko eraikitze teknika tra-  
dizionalak aplikatuz.  
Eraikinaren egitura hormigoizko  
bi losek osatzen dute. Oinarriko  
lauza, uretik babesteko zorutik  
altxatzen dena, eta estalki lau era-  
bilgarriak.  
Bi egitura elementu hauen barne-  
an, libreki kokatutako adreiluzko bost  
kutxa daude. Tokiko eraikitze tek-  
nikak erabilita jasotako bolumen

hauek beharrezko funtzio guztiak  
biltzen dituzte: sukaldea, egongela,  
partekatutako bainugelak eta lau  
logela. Kolorezko kaxak estalkitik  
harago hedatzen dira, sabai-leiho  
bihurtuz eta aldi beran aireztapen  
naturala bermatuz. Adreiluzko egi-  
tura hauen arteko kanpo-barne  
espazio hutsek, distribuzio espazioak  
izateaz gainera, jolas eta topaketa  
eremuak ere badira.  
Itxiturari dagokionez, banbu-er-  
zel batek eraikina bildu eta eguz-  
kitik babesten du, itzal-eremuak  
barruko eta kanpoko espazioen  
arteant sortuz.

Arkitekto taldeak erabiltzaileak  
diseinu prozesuaren parte egin nahi  
izan ditu, umeen parte hartzea ere  
kontuan hartuta, marrazki eta  
jokoekin. Marrazki hauen erantzule  
kolorezko kaxen konposizioa da.  
Adituen laguntzarekin bertako  
bizilagunek parte hartu dute erai-  
kinaren eraikuntzan.  
Programa honen helburua, koo-  
perazio proiektuen bitartez behar-  
tsuenendako etxebizitza eraikinak  
egitea da, tokiko eskulana erabi-  
liz eta, aldi berean, bizilagun behar-  
tsuenen integrazio soziala bermatuz.



# Gozategiren hausnarketarako formatua

**G**ozategi taldeak 25 urteko ibilbidea egin du eta urteak betetzen segituko du. Baina taldeko ardatzak, Asier Gozategik eta Iñigo Goikoetxeak, elka-

rrekin proiektu paraleloa jarri dute martxan: *Iñigo eta biyok, Gozategiz*. Biak eszenara bakarrik, aurrenekoz, pasa den astean igo ziren, Orion.



## gertutik >>

### Iñigo Goikoetxea

#### Gozategiko kidea

**6 kantuko emanaldi bat. Argi dago hau ez dela betiko Gozategi!** Ez da betiko Gozategi. Toki txikitik kontakizun asko egiten dituen emanaldi bat da. Hau beste ikuspuntu batetik ikustera joan behar da. Ezberdina da. Konturatu gara, azkeneko lau zapabost urteetan berpizte bat izan dela plazan. Asko pentsatu dugu horren inguruan: zergatik pasatzen da? Gizarteak zer behar klase du halako berpizte bat emateko? Ideia horri bueltak ematen gidoitxo bat prestatzen hasi ginen. Azkenean, emanaldi bat atera zaigu. Kontakizun intimoa eta zuzeneko musika. Lau hitz horiekin laburtzen da prestatu duguna.

**Eszenatokia psikologoaren dibana bihurtu duzue?** Hainbesterako ez. Gure ibilbide honetan gauza asko gertatu zaizkigula konturatu gara. Gertatu zaizki-

gunak baino garrantzitsuagoa izan da zer gertatu den pentsatzea, baina batez ere, gauza horiek aurrera begira pausak emateko nola kokatzen gaituzten. Nik uste hausnarketa hori egiten dugula. Ez da historiaren laburpen bat; historia eman diguna aprobeztatuz, aurrera egiteko eta aurrera pauso horiek nola eman behar ditugun zehatzeko modu bat baizik.

**Guztia Gozategi filitrotik pasatuta?** Bai. Emanaldia Asier eta biok izaera oso ezberdina dugula esaten hasten da. Txuria eta beltza izan gaitzkeela. Emanaldiaren ardatza izanen litzateke, nolabait, ezberdinen arteko errespetua eta elkartasuna. Bi mutur horien elkartasun gainontzeko koloreak sartu daitezke. Nik uste gizarteak behar duela, nolabait, errespetua ardatz moduan hartzea. Gaur egun politika, hedabideak, gauza guztietan errespetu falta ikusten da. Horrela herri bat eraikitzea oso gauza arraroa dela iruditzen zaigu. Gure 25 urteetan egin ditugun kanta guztietan herriari hitz egiten diogu, herriaren elkartasunari eta, beti

ere, errespetuz. Gauza serio askori buruz umore puntua jarrita hitz egin dezakezu, horrek ez du esan nahi errespetua faltatzen diozunik. Horiek guztiak ibiltzen ditugu kontuan. Ideia horiei guztiei buelta emanez sortu dugu emanaldia.

**Hizketaldi, errezitaldi, kantaldi... - aldi pila bat izan daiteke, ezta?** Bai. Eta, egia esan, denak daude: bien arteko hitz-aldiak, anekdota asko, zuzeneko musika, irakurketa, gertatutako hainbat gauzen bideoak... Emanaldia, nik uste, oso interesgarria dela. Hainbat momentutan hunkigarria ere. Asierrek aurreko batean elkarrizketa batean esan zuen mentalki biluztu egin garela.

**Orain arte plazako emanaldien akaberako entzuleen aho zaporea jakina da. Honena zein da?** Askotan esaten dugu kalejira baten inguruan herria batzea lortu daitezkeela. Kalejirak eskutik hartu eta elkarrekin dantza egiteko aukera ematen du. Dantza hori nahiko motibo izan daiteke dantzatu duzun horren agurra urte guztian izateko. Lagun bezala ikustea, nahiz eta gero

bizi garen abiaduran hizketaldiak izateko aukerarik ez izan. Agurra, behintzat, agur positiboa izateko. Eta hori herri batean oso garrantzitsua da. Hausnarketa horren inguruan jendeak pentsatzea nahi genuke. Jendea hausnarketa horrekin etxera joatea nahi genuke.

**Jendeak errotari bueltak ematen etxera bidaltzea?** Bai. Hori kontatzeko gogoia dugula sentitzen dugu. Nahiko esperientzia badugu. Aurreneko emanaldian oso kritika positiboak jaso ditugu. Askok esaten digute: ez dakigu zertara goazen! Kontua da areto itxi batean sartuko dela eta eszenatoki batean bi pertsona eserita izanen direla; jendea butaketan eserita. Hor Asier eta biok hausnarketak egiten eta hainbat gauza kontatzen hasiko gara.

**Gozategik segituko du?** Gure ideia taldearekin zuzenekoak ematen segitzea da. Gozategiren egin behar garrantzitsuena zein den oso garbi daukagu: jendeak plazan ongi pasatzeko musika egiten dugu. Plazan bizi poza lortu eta sortzea.

# Kantu jaialdia

**L**akuntzako kultur etxeak Nafarroako Haur eta Gazte-txo Kantarien aurtengo hiru-garren jaialdia hartu zuen atzo. Lau herritako 139 abeslari, 13 talde, igo ziren eszenatokira. Haien artean Lakuntzako Luis Fuentes eskolako lau taldek kantu bana abestu zuten, eta San Saastin musika eskolako talde batek ere. Kantu jaialdiak 400 ikusle erakarri zituen, eta ez zirenez kultur etxean sartzen, bi emanaldi egin zituzten, 9 kantakoa bakoitza.

Amaia Dominguez antolatzaileak azaldu digunez, "biak oso emanaldi ederrak izan ziren eta haur eta gaztetxoentzatesperientzia paregabeasuertatuzen". Dominguez oso eskertuta agertuzen bai Lakuntzako eskolako irakasleen laguntzaren-gatik baita Lakuntzako Udalaren babesarengatik ere. Lakuntzari lekukoa igandean Berriozarre hartu zion. Lau jaialdiren ondoren, Nafarroako Haur eta Gazte-txo Kantarien Jaialdi Nagusia Tafallan izanen da, apirilaren 30ean.



# Blues gaua

**Martxoaren 24an, ostegunean, 22:30ean Altsasuko Haritza tabernan**

**J**aime Alvarellosek (ahotsa eta gitarra), Alejandro Mingotek (gitarra eta lap steela), Kike Arzak (baxua) eta Juanma Urrizak (bate-

ria) osatzen dute Animal Blues. Taldearen izen bera duen diskoa azaroan argitaratu zuten (Gaztelupeko hotsak) eta hura aurkeztuko dute Altsasun ostegunean. Animal Bluesek "musika beltzeko" talde gisa aurkeztzen du

bere burua, bluesaren, jazzaren eta soularen iturrietatik edanez. Taldea blues klasikotik rock moldeetik gertuago dauden espazioetan dabil, nahiz eta jazzaren eta funkaren eraginak ere hauteman daitezkeen. Guztia eskarmentu

**Bakarrizketak**  
Haritza tabernak igandean, 22:30ean, Movimiento Bola talde iruindarreko bakarrizketagileak hartuko ditu.  
handiko musikariek modu dotorean eta eraginkorrean interpretaturik.

**Non erabili**

**JON CORDON TAXIA**  
**IRURTZUN**  
%10eko deskontua.

**JAVIER AIZPUN HARATEGIA**  
**UHARTE ARAKIL**  
50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

**UHARTE GAZTA**  
**UHARTE ARAKIL**  
40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

**BERGARA CENTRO OPTICO**  
**AGURAIN**  
Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan % 10eko deskontua.

**JUGA TAILERRAK**  
**ARBIZU**  
%10eko deskontua mantenu piezetan, %5eko deskontua gurpiletan.

**ENERITZ ILEPAINDEGIA**  
**ETXARRI ARANATZ**  
%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

**EKIN**  
**ALTSASU**  
100€ko erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

**IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA**  
**ALTSASU**  
%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisisa doan.

**IOSUNE MARAURI**  
**ALTSASU**  
Bakarkako sesioetan %5eko deskontua.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai

**BAZKIDETZA 50€**  
**948 564 275**



## G

asteko >> : eguraldia

osteguna	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	astearte	asteazkena
euria: 18%	euria: 40%	euria: 15%	euria: 80%	euria: 70%	euria: 65%	euria: 50%
Min: 3 Max: 9	Min: 3 Max: 12	Min: 7 Max: 17	Min: 8 Max: 12	Min: 4 Max: 13	Min: 5 Max: 12	Min: 4 Max: 11

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	14.5	-1	32.9
Etxarri A.	13.5	-2.4	30.1
Altsasu	11.5	-1	21.7
Aralar	4	-4.9	0.7
Urbasa	10	-2	33.4

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
31	7	14	22

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide zozketa

MARSUKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Aquarium: sarrera bat.  
Lacturale: esneki lotea.  
Artium museoa: 2 sarrera.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea: 2 sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Aquarium: sarrera bat.  
Lacturale: esneki lotea.  
Artium museoa: 2 sarrera.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea: 2 sarrera.

# >> 11 galdera

Luis Alberto Besga

Transakanako zuzendaritzako kidea

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



## Zabaldu atea komunikazio bide berriei

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

**1. Zergatik sortu zen kooperatiba?**  
Urte horietan garraioaren egoera jasangaitza zen. Autonomoak ginen eta bakoitza bere aldetik ibiltzen zen. Urte bat lehenago garraio greba handi bat izan zen, ezagutu dudana handiena. Sakanako autonomoak bildu ginen eta hogeie egunez elkarrekin egon ginen. Bertan egoeraz hitz egin genuen eta kooperatiba bat sortu behar genuela erabaki genuen. Hurrengo urtean, 1991an, kooperatiba sortu zen.

**2. Zein onura ditu kooperatibista izateak?**  
Lehenengo gauza, bazkide izatean elkarrekin aritzen zarela eta, ondorioz, indar handiagoa duzula. Lana, zamaketari edo eskaintzen aurrean enpresa bezala aurkezten zara eta indar handiagoa duzu. Honen xedea kostuak merketzea da. Erregai, esaterako, 50 bazkide garela esaten badugu eta gasolioa merkeago nahi dugula, askoz errazagoa da lortzea. Lana ondoren iritsi zen, izan ere, garai horretan bakoitzak gure lana genuen. Askok enpresa berdinerako lan egiten genuen, baina gure kabuz. Baina garraio enpresa bat zaren bezala aurrean beste modu batean aurkezten zara eta, horrela, lana pixkanaka iritsitzen.

**3. Kooperatibistei zein zerbitzu eskaintzen zaie?**  
Garraioaren eginkizunean sortu daitezkeen kostuak merketzea, batez ere. Lehenengo gauza gasolio hornigailu bat jartzea izan zen. Bazkideek erregai merkeago lortzen dute, baita behar duten gainerako guztia ere: gurpilak, aseguruak, eta abar merkeago lortzen ditugu. Lan egiteko behar duguna, azken finean. Enpresa bezala ere

eskaintzen gara. Autonomo bezala egotea baino egoera egonkor bat da hau. Eskualdeko enpresa guztiek ezagutzen gaituzte. Batzuk hots egiten gaituzte, beste batzuk ez; horrelakoa da merkatua.

**4. Lanak nola banatzen dituzue?**  
Enpresa txiki bat da eta ez dauka zailtasun handiegirik. Trafiko buru bat dugu, honen bilaguntzailer eta garraioari begira hiru pertsona daude. Administrazio lanean beste pertsona bat dago. 27 kamioi ditugu. Azkenaldian hiru egon dira bajan, baina normalean 27 kamioi ditugu.

**5. Kamioiak norenak dira?**  
Autonomoen kooperatiba bat gara, beraz, kamioiak garraiolari bakoitzarenak dira.

**6. Zenbatero aldatzen dituzue kamioiak?**  
Kamioiek 100.000 kilometroko bizi-tza dute. Atzerrira askotan bidaiatzen dutenak kilometro gehiago egiten dituzte, eta lehenago aldatu beharko dira.

**7. Zein sektoreendako lan egiten dituzue?**  
Edozer gauza kargatzen dugula esan dezakegu, edozein merkantzia eramateko aukera dugu. Granelak edo likidoak izan ezik, edozein gauza: burdina, egurra, eraikuntzarako materiala, eolikoak...

**8. Nola aldatu da garraioaren sektorea 25 urteetan?**  
Garraioaren sektorea ez da asko aldatu. Eskaintza eta eskariaren arabera lan egiten da eta autonomoen kontua beti egon da. Miseria batengatik nik ez badut kargatzen beste bat etorriko da eta kar-

gatuko du. Guk politika bat jarri dugu eta ez dugu kostuen azpitik kargatzen, bizitza garraioarekin aurrera eraman nahi dugulako.

**9. Kooperatibistek lan kargari aurre egin ezin diotenean, zer egiten duzue?**  
Garraio-agentzia edo operadorea ere bagara. Beraz, zerbait ezin badugu egin beste garraio kooperatiba batera deitzen dugu edo beste garraio enpresa batera. Nahi gabe sare bat sortzen da eta gure artean harremanetan gaude etengabe. Bezeroek beti izanen dute zerbitzua.

**10. Zer nolako bidaiak egiten dituzue?**  
Duela 25 urte hasi ginenean gehien bat eskualdean eta Espainia mailan egiten genituen bidaiak, baina krisiarekin esportazioan lan egiten dugu. Egiten dugun bidaiarik luzeena sei eguneko jardunaldia izaten da. Azken analisien arabera hori ondoriozta dezakegu, ez bazara kanpora ateratzen, ez duzu lanik egiten. Enpresa txiki bat garen heinean hemen gelditzen bagara, ezin genuke aurrera egin.

**11. Beraz, krisi ekonomikoa nabaritu duzue.**  
Bai. Garraioa ekonomiaren zutabe garrantzitsu bat da, eta azkenean, krisiak jo du. Enpresa asko desagertu dira, autonomo bezala jarri ziren askok utzi behar izan dute... Askok nabaritu da. Esportazioan aritzen ez diren lanetan gehien bat. Ekonomiaren aldetik ere garai gogorak jasan ditugu. Ez dut esanen krisia bukatu dela ezta gutxiago ere, izan ere, gaur dagoena bihar desagertu daiteke. Baina aurrera egin dugu.